

# Arrasate

P R E S S

1997ko  
 maiatzak 23  
 364. zenb.



50 urte  
 bete ditu  
 herriko elkarterik  
 ospetsuenak

## Udalpe elkarteak

**KULTURA:** GOIO JAKA • **IKUSPEGIA:** KARMELE PEREZ  
**IRITZIA:** ALFONSO DONNAY • **KIROLAK:** OSKAR ASKASIBAR

# Arrasate Musikal

## DATORREN IKASTURTERAKO ESKAINTZA

### KONBOAK

Rock, Pop, Jazz musika taldearen erabilpena.  
Baxu elektrikoa, Bateria, Latin perkutsioa. Piano modernoa.  
Armonia, Jazza, inprobisazioa.

### ATZERATUENDAKO PROGRAMA

Musika eta instrumentua (Orff sistema, Aschero sistema).  
Dinamika eta psicomotrizitatea.  
Entzuketak.

### INSTRUMENTU ETA ESPEZIALITATEAK

#### ADINA: 4 URTETIK AURRERA

HELDUENDAKO PROGRAMAK	BONBARDINA
MUSIKA HIZKUNTZA	KITARRA
HISTORIA, ARTE, ESTETIKA	BATERIA
ERA MUSIKALAK	PERKUTSIOA
KAMARAKO MUSIKA	BIBOLINA
TRANS ETA REPENT.	BIOLA
ARMONIA	BIOLONTXELOA
KANTUA	KONTRABAXUA
PIANOA	BAXUA
AKORDEOIA	BANDA
TXISTUA	ORKESTRA
KLARINETEA	TALDE INSTRUMENTALA
OBOEA	BALLETA
SAXOFOIA	TRONPA
FAGOTA	TRONBOIA
TRONPETA	KREAZIOA
FLAUTA	



Atzeratuendako programa.



Orkestra txiki.



Ballet-eko taldea.

**MATRIKULA EPEA ZABALIK (Plaza mugatuak)**  
**Maiatzaren 19tik ekainaren 20a arte**  
**Lanegunetan, arratsaldeko 5etatik 8ak arte**

Posta Kutxatila 104 • 20.500 ARRASATE • Tel.: 77 05 40- 79 06 83 • Faxa: 77 05 40

**ORAIN DA ZURE AUKERA. ANIMATU!**

# Demokrazia, utopia ote?

Aste honetan bertan haurrei demokrazia zer den azaltzen ikusi dut norbait. Gauza serioa izan arren, grazia egin zidan entzundakoak: errealitatean nekez ikus ditzakegun gauzak esan zituelako, agian.

Boterea herriaren esku uzten omen du demokrazia: errespetua, berdintasuna eta oinarrizko eskubideen bermea aldarrikatzen omen ditu. Eta, noski, guk ditugun gobernuak honen eredu garbi omen dira. Zer esango ote luke Rousseau-k burua altxatuko balu...

Demokrazia, herri "demokraten" bandera da, eta presioaz baita demokrata ez direnen derrigorrezko eginbide ere. Eta, nork hartzen du bere gain irakasle papera? Gure gobernuak? Mundu "zibilizatu" eta "garatuak"? Ez dugu "Iparralde" eta



Karmele Perez

"Hegoalde" bereizketa egin beharrik; ez dugu batez ere EEBB-en baina baita beste potentzia askoren megalomaniara jo beharrik; hurbilago ere badugu zenbait adibide.

Gure artean ere pertsonen oinarrizko eskubideak bortxatu egiten dira: presoek, langileek, emakumeek, gazteenak...

Gure artean adierazpen askatasuna omen dugu. Denontzat berdina al da eskubide hori? Neurgailu ezberdinen frogak hain dira ugari eta nabariak non farrea ere eragiten duten zenbait agintariren deklarazioak.

Gurean berdintasuna eta errespetua sistemak berak eta sistema hori elikatzen duten politikoei irentsi dituzte. Noren eta zeren interesei begira ari dira? Herriak aukeratu ditu agintariak, boterea herriak dauka eta agintariak herriaren nahien bozera-male eta egile ei dira. Nork

nahi du Itoizko urtegia, Guggenheim, autopistak, Y grekoa... herri nano hau handi bihurtuko ote dute proiektu horiek? Merezi al du ordaindiko dugun prezioak? Eta non gelditzen da ezberdin edo txiki izatearen duintasuna?

Gugandik hurbil eta gugandik urrun, ohiturak, kulturak, hizkuntzak, ekonomiak, pertsonak... globalizatzeko eta bat egiteko joera nagusitu da. Denok eduki behar ditugu gustu, behar eta desio berberak, denok izan behar dugu zuri, altu, eder eta konpetitibo. Eta eskema hauetatik kanpo gelditzen dena...

Gure demokrazia partzial eta alderdikoi hau al da zibilizatu eta garatu izatearen eredu? Arazoa gehienok dugun ideia utopikoan datza. Benetako demokrazia utopia ote... Utopia horrek mantentzen gaitu, gaur makalago bihar tinkoago, baina beti hobekuntzaren bila. Galeanok berak ere horrela dio: "Hamar pauso eman eta zeruertzta hamar pauso urruntzen da. Nik asko ibilita ere, ez dut inoiz atzemango. Zertarako balio du utopiak? Horretarako balio du: ibiltzeko". Gutxiengoek ere badugu indarra eta aurrera egiteko kemena, ze arrai!! ■

**"...globalizatzeko eta bat egiteko joera nagusitu da... Eta eskema hauetatik kanpo gelditzen dena..."**

**ARKO**  
ARRASATE  
KOMUNIKABIDEAK

ARRASATE PRESS  
Argitaratzailea: ARKO (Arrasate Komunikabideak) Orotarra Kalea, 31  
20.500 ARRASATE (Gipuzkoa)  
Tel.: 77 05 65. Faxa: 77 09 40

**Laguntzaileak:** Arrasateko Udala, Zuzendaria: Behar-do Kortabarria, Kazetariak: Maria Agirre, Itxaro Zubillaga, Maider Egües, Marian Porcel, Publizitateak: Kaitlin Allende, Nerea Zalzo (Tel.: 77 08 15), Administrazioak: Ikarme Altube (Tel.: 79 02 26) Diseinua: Goio Arana, Kolaboratzaileak: Ander Etxeberria, Marta del Campo, Iban del Campo, Itxaro Artola, Bixente Azkarate, Joxerra Agirre, Juan Luis Azkarate, Aitor Orobeno, Mikel Inzar, Udaltzako Gaztaria Saila, ASA taldea, Sabin Arrieta, Eneko Allende, Besaide M. E., Karmelo Uribe, Fidel Berezibar, Bixente Pagoaga, Amaia Jauregi-Arraburu, Juan Bautista Agorria, Jose Mari Astigarraga, Jesus Larrañaga, Matilde Sainz, Iker Barandiaran, Xabier Letona, Karmele Perez, Kopti, Jon Ozaeta, Virginia Urkiola, Jabi Luengo, Maite Barrena.

**Banaketa arduraduna:** Jaxone Mendizabal-AED. (Tel.: 77 12 28). © ARRASATE PRESS. Tirada: 6.200. **Lege-Gordailua:** 1124/88. **ISSN:** 0214-4654. Frankeo konzerntatua. **Inprimategia:** Gertu Koop. E. (Zubillaga, Oñati).

ARRASATE PRESSEK ez du bere gain hartzen aldirizkariaren adierazitako esanien eta iritzien erantzukizunik.

ARRASATE PRESS paper birziklatuan egiten da.

**Azaloko argazkia:** Joseba Valles.

## 364. zenbaki honetan

1997ko maiatzaren 23an

Asteko agenda.....	<b>4/5</b>	Orain eta hemen ..	<b>10/12</b>	Kulturaren txokoa ..	<b>26/27</b>
Irakurlea idazle .....	<b>6</b>	Txutxumutxuak.....	<b>14/15</b>	Azoka plaza .....	<b>28/29</b>
Inkesta.....	<b>7</b>	Asteko gaia .....	<b>17/19</b>	Ikusi eta entzun .....	<b>33</b>
Euren ikuspuntutik .....	<b>8</b>	Kirolak jokoan.....	<b>20/22</b>	Foto zaharra .....	<b>34</b>

*Ikuspegia*  
**Karmele Perez** ..... **3**

*Euren ikuspuntutik*  
**Alfonso Donnay** ..... **8**

*Aurrez aurre*  
**Iñaki Linazasoro** ..... **24/25**

*Kulturaren txokoa*  
**Goio Jaka** ..... **27**

*Hogeita hamar galderatan*  
**Juanito Arzamendi** ..... **30**

*Asteko gaia*  
**Udalpe,**  
**50 urte lagun artean** ..... **17/19**

Maiatzaren 26an 50 urte betetzen ditu Udalpe elkarteak. 30 bazkiderekin hasi eta egun 270 dituen elkarteak ez dira ez anekdotak faltan izan bere historian.

# 23

ostirala

■ ZINEA

*Territorio comanche.* Alai zineman 7etan eta 10etan.

■ AL ANDALUS KULTUR ASTEA

Arratsaldeko 6.30etan hitzaldia elikadura eta nutrizio-ari buruz. 7.30etan Garcia Lorca taldearen *El genio Alegre* antzezlan. 9.30etan bazkideen poesia emanaldia Mari Martinezen laguntzaz. Gaueko 11etan *I. Flamenko Gaua*.

# 24

larunbata

■ ZINEA

*El santo.* Alai zineman 5etan, 7.30etan eta 10etan.

■ ZARTZUELA

*Sainetes picarescos de Barbieri* Amaia antzokian gaueko 10etan.

■ AL ANDALUS KULTUR ASTEA

Arratsaldeko 4etan mus txapelketa. 6etan dantza eta abesbatzen emanaldia.

■ GAZTETXEAN KONTZERTUA

*Luther* eta *Eraso* taldeak gaueko 10.30etan Gaztetxean.

# 25

igandea

■ ZINEA

*El santo.* Alai zineman 5etan, 7.30etan eta 10etan.

■ ZIKLOTURISTEN IRTEERA

IBILBIDEA: Arrasate, Maltzaga, Sasiola, Kalbario mendatea, Ondarru, Markina, San Migel, Elgoibar eta Arrasate. Irteera 9etan Monterrondik.

■ XV. ARRASATE-OÑATI

Jantzi kirola euskaraz lemapean Arrasate-Oñati lasterketa. Irteera goizeko 11etan Arrasateko Portaloitik.

■ ABIALDIAN-97

Askatasunaren martxa dela eta, Abialdian plataformak Euskal Herriko 600 gailurretara igotzeko asmoa du. Udalaxera igotzeko irteera goizeko 10etan Udalatik.

■ IBIALDIA LEIOAN

Bizkaiko ikastolen aldeko jaira joateko autobusa antolatuta du AEDk. Irteera goizeko 9etan Zaldibartik.

■ UDALPE ELKARTEAREN URREZKO EZTIAK

Goizeko 11etan meza San Frantzisko elizan. 12etan Arrasate Musikaleko Banda eta Udalpeko Tanborradarekin kalejira. 12.30etan eskuzko pilota partiduak Zaldibarren.

■ SENIDE ARTEKO XII. TOPAKETAK AITA MENNIN

Goizeko 10.30etan harre-  
ra. 11etan eukaristia. 12etan hasierako hitzaldiak. 12.30etan gaisoen ekitaldia. 2etan bazkaria. 3.30etan zozketa eta dantzaldia.

# 26

astelehena

■ ZINEA

*El santo.* Alai zineman 7etan eta 9.30etan.

■ MONDRAGON BRASS TALDEA

San Viator ikastolan arratsaldeko 7etan. Arrasate Musika-kalek antolatuta.

■ JARDUNALDI INTERNAZIONALISTAK

Gaia: Peru. Hizlaria: Felix Rey. Euskaraz izango da. Arratsaldeko 7etan Monterronen.

# 27

asteartea

■ ZINEA

*El santo.* Alai zineman 7etan eta 9.30etan.

■ HITZALDIA

Gaia: Zer egin dezakegu oinak egoera onean mantentzeko?. Hizlariak: Alex Azkarate podologoa eta Alberto Garai medikua. Arratsaldeko 6.30etan San Viator Txikiko mediatekan.

■ JARDUNALDI INTERNAZIONALISTAK

*Sahara: Llamando a las puertas del cielo* pelikularen estrenaldia arratsaldeko 7etan Monterronen.

## LAN ESKAINTZAK

Arrasateko Udalak aldi baterako kontratu hauek egin nahi ditu:

- Euskaltegiko irakasle esperientziadunak.
- Euskaltegiko praktikazko irakasleak.
- Udal Irratiko laguntzailea.
- Udal Liburutegiko laguntzailea.
- Ingurugiroko Eskolako laguntzailea.

Oinarriak udaletxean jaso daitezke. Izenak emateko epea ekainaren 2an, astelehena, amaituko da.



ARRASATEKO UDALA

Personal Sails ■

# 28

## asteazkena

### ■ JARDUNALDI INTERNAZIONALISTAK

Gaia: Sahara. Hizlariak: Mohamed Salem, Frente Polisarioaren ordezkaria Euskal Herrian. Arratsaldeko 7etan Monterronen.

# 29

## osteguna

### ■ ZINEA

*El retorno del Jedi*. Alai zinema 7etan eta 9.30etan.

### ■ ZINE KLUBA

*La fractura de miocardio*. Amaia antzokian gaueko 9.30etan. Sarrera: 400 pta. eta gazte txartelarekin 350 pta.

### ■ EKINEN HITZALDIA

Gaia: Emakumeak lanean, gizonen pare?. Hizlariak: Maitte Aristegi, Nagore Gabellanes, Esther Larrañaga eta Nuria Martínez. Moderatzailea: Ana-je Narbaiza. Arratsaldeko 6.30etan AEDko lokalean. Ekin elkarteak antolatuta.

### ■ JARDUNALDI INTERNAZIONALISTAK

Forum: Hezkuntza Saharan, diapositibak eta Saharako ikasleen partaidetza. Arratsaldeko 7etan Monterronen.

### ■ ORTZADAR ATSEDEN TALDEA

Aretxabaletako Ortzadarrek antolatutako udaleku irekitan begirale izatea nahi dutenek Aretxabaletako Herriko plaza 1, 3. pisuan eman dezakete izena ekainaren 2tik 13ra. Orduategia arratsaldeko 5etatik 8ak arte. Begiraleez gain, Udalekuak koordinatuko duen zuzendari tituloa duen norbait behar dute.

### ■ DEBA GARAIKO LANBIDE HASTAPENA

97-98 ikasturterako matrikula zabalik. Eskabi-deak udaletxeetan egin behar dira maiatzaren 23a arte, goizeko 11etatik ordubata arte. Matrikula Zaldibar Ikastetxeko idazkaritzan goizeko 10etatik 12.30ak arte. Matrikula arrunta ekainaren 9tik 19ra eta uztailaren 1etatik 4ra. Berezia irailaren 2tik 10era.

### ■ IRUDI LEHIAKETA

San Juan jaietako *Geu gara garra* materialetan erabiltzeko irudi edo marrazkitxoak aukeratzeko lehiaketa. Edonork har dezake parte. Lanak txuribeltzean. *Geu gara garra* lema eta *San Juanak 97* testua jarri behar du. Bozetoak aurkezteko epea ekainaren 2an bukatuko da. Lanak Gazte Bulegoan, Erdu AEKn edo AEDko lokalean aurkez daitezke.

### ■ ARTE ERAKUSKETA AITA MENNIN

Ekainaren 20a arte Eskualdeko artisten eta Ospitaleko gaisoen lanen erakusketa Aita Mennin. Orduategia: lanegunetan 5etatik 6.30ak arte. Larunbatetan 11etatik

ordu bata arte eta 5etatik 6.30ak arte.

### ■ GOLF IKASTAROA

Hasierako ikastaroa Bergarako Zabalotegi pilotalekuan eta Lagranen. Maiatzaren 24an eta 31n Bergaran. Ekainaren 7an eta 8an Lagranen. Orduategia: Bergaran 3etatik 6.30etara. Lagranen 11.30etatik 2ak arte. Prezioa Deba Garaiko Udal kirol zerbitzuko bazkideentzat 9.000 pta. eta besteentzat 11.000 pta. Hobe-kuntza ikastaroa Urturiko Izki golf zelaian ekainaren 14an eta 15ean. Orduategia eguerdiko 12etatik 2ak arte. Prezioa bazkideentzat 5.000 pta. eta gainontzekoentzat 6.000 pta. Izena emateko Musakolako kiroldegira deitu 79 04 27 zenbakia.

### ■ IKASTAROA

Tiffanis lanparak egiten ikasteko ikastaroa Famili eta Gizarte Heziketarako zentroan. 9 orduko ikastaroa. Izena emateko epea zabalik dago. Horretarako lokalera zuzendu, (79 04 59).

### ■ ERAKUSKETA MONTERRONEN

Jardunaldi internazionalistak direla eta, Peru, Sahara eta Chiapasi buruzko erakusketa Monterronen maiatzaren 29a arte.

### ■ MENDI IRTEERA

Besaidek Madoz eta Larraitzera mendi irteera antolatu du ekainaren 1erako. Izenematea maiatzaren 27an, 28an eta 29an arratsaldeko 7.30etatik 8.30etara Besaideren egoitzan.



### ■ MARCELINO ETA ESTHER RUIZEN ERAKUSKETA

Marcelino eta Esther Ruizen pintura eta eskulan erakusketa Harresi aretoan maiatzaren 23tik ekainaren 8a arte. Orduategia: lanegunetan 6etatik 8ak arte. Larunbatetan eta jaiegunetan 12etatik 2ak arte eta 6etatik 8ak arte.

## LANAREN BANAKETA

Euskal Herrian ditugun indikadore ekonomiko guztiek azkenengo hamarkadetan oso egoera garbia adierazten dute: nahiz eta barne produktu gordinaren bilakaera positiboa izan, gero eta enplegu gutxiago dago. Teknologia berrien eraginagatik produktibitatearen hazkundea ere gero eta handiagoa delako. Azkenengo egunetan Jauregik publikatutako inkesta batean zera agertzen zaigu: 1985 eta 1996 artean gure industriaren produktzioa %22 igo egin da baina lanpostuen herena baino gehiago (%35) galdu egin da.

Orokorki, Hego Euskal Herriak sufritzen duen egoera soziala ikaragarri larria da. Gure langabezia tasak (%23) Europako erdi mailako langabezia tasa bikoiztu egiten du, Europa mailako emakume eta gazteen langabezia tasa handienak hemen ditugularik; familien %20a pobreak dira, lan merkatuaren herena kilokoloko egoera batean dago, ia 30.000 familia pobrezia muturrean bizi direlarik.

Alemanian, nahiz Suitzan edo Frantzia, lanaren banaketari buruzko eztabaida oso bizia da, eta gero eta neurri zehatz gehiago ezartzen dabilta. Herri hauetan gero eta kontsentsu sozial handiagoa ikusten dugu ekimen horren alde, aurka kontserbadoreak soilik agertzen direlarik.

Azken urteetan aberastanaren eta lanaren banaketari buruzko azterketak eta eztabaidak ugaritu dira Euskal Herri osoan. Testuinguru honetan, "Gogoa" plataformak edukitako ekimenak lur emankorra ereiten du, eta zenbait talde eta erakundetan gauzatutako kontzientzia eta sentsibilitateak bideratu ditzake, dinamika berri bat sortaraziz.

Jakina, Euskal Herrian dugun egoera ikusirik, lanaren banaketa eta soldata uni-

bertsalaren aldeko dinamika hori ezinbestekoa da, eta arlo sozio-laboralean plazaratutako ekimen ekonomiko-sozial garrantzitsuena bihurtu daiteke. Guztioi dagokigu orain, lehorturik dauden eremu sozial horiek ureztatuz, Euskal Herri osoan udaberri bat erditzea.

*Antxon Mendizabal,  
Sagra Lopez*

## EUSKAL PRESOEN HIZKUNTZA ESKUBIDEA ERE ZAPALDUTA

Gure asmoa da euskaltzalegon artean Espainiako eta Frantziako kartzeletan euskarak jasaten duen zapalkuntza eta mesprezua ezagutaraztea. Bi atal jorratuko ditugu, alde batetik presoen komunikazioak (gutunak, telegramak, telefono deiak...) eta bestetik argitalpenak.

Ley Orgánica General Penitenciaria delakoaren 51. artikuluan esaten da espetxeratuek senitartekoarekin, lagunekin jatorrizko hizkuntzan hitzegiteko eskubidea dutela. Baina benetan gertatzen dena oso bestelakoa da euskal presoek dagokienez.

a) Gutunak, telegramak.

- Euskaraz idaztea debekatuta egon da luzaroan, eta debeku ofizialik izan ez denean, euskaraz idatzitako gutun zein telegramak hilabeteak, eta kasu batzuetan urteak ere, behar izan dituzte heltzeko. Beste asko sekula ez dira heldu.

- Euskaraz idatzitako guttia Madrilerara bidaltzen dute itzultzera.

b) Kartzeletan egiten diren bisitaldiak.

- Kartzeletan debekatu izan da euskaraz hitz egitea, eta euskarazko hitz bat esateak bisitaldia bertan behera uztea eragin izan du. Hala ere, elkarriketa guztiak zintatan gra-

batuta gordetzen dituzte.

d) Telefono deiak.

- Bisitaldian gertatzen den antzera gertatzen da telefonoz deitzen dutenean; telefonoz euskaraz hitz egitea debekatzen diete preso askori.

Bestalde, Ley Orgánica General Penitenciaria delakoaren 58. artikuluan arabera, espetxeratuek kanpoaldean zirkulazioa askea duten liburu, egunkari, eta aldizkariak izateko eskubide osoa dute.

- Estatu espainiarreko kartzeletan euskarazko argitalpen guztiak hilabeteetan ibiltzen dira hor zehar euskal presoek eskuetara iritsi baino lehen, iristeko zorian izaten bada.

- Salaketa ugari egin dituzte presoek *Argia*, *Hemen*, *Egunkaria* eta abar luzea jasotzea debekatu izan zaielako.

- Espetxe Erakundeek, bere legeari begiratzen badio, ez du inolako eskubiderik bahikuntza horiek egiteko.

Azkenik esan beharra dago, zenbait epaileren erabakiek argi uzten dutela gure ustez Estatu espainiarreko kartzeletan ez dela legea betetzen, eta gainera epaileek diotenari ere inolako begirunerik ez diotela.

*Erdu-AEK*

## Zuzenketa

Joan den asteko *Usteak* *Uste* sailean ustekabeen aldatu egin zitzaion jatorria Pablo Ruiz Picasso margolariari. Izan ere, zutabeen kataluniarra zela aipatzen zen, eta ezaguna denez Picasso Malagan jaio zen.

## KIROLA ETA PASIOA

Lerro hauen bidez, Arrasateko nesken futbol taldeak aurreko atalean argitaratu zen "Kirola eta pasioa"ri buruzko iritzi txiki bat eman nahi du.

Hasteko esan beharra dugu kirolari bezala asko sentitzen dugula Urbina-Maltzaga saskibalo taldea, Arrasateko eskubalo taldea eta Mondrako mutilen futbol taldeen jeitsiera, eta jakin badakigu honek zer-nolako egoera suposatzen duen bai beraientzat eta bai herri batentzat, are eta gehiago herri mailan duten ohiartzuna ikusirik. Baina gure iritzi apalean "kirola eta pasioa" artikulua idazterako orduan herrian dauden beste kirol talde batzuk ahaztu egin dira, eta gainera azpimarratu beharra dago egin duten denboraldia benetan txalotzekoa izan dela, hainbat sari lortuz eta Arrasate herriaren izena gorengo maila batean utziz. Aipatzekotan hor ditugu Arrasateko atletismo taldea eta gimnasia erritmikoko taldea; nesken futbol taldeak ere iaz lorturiko maila mantentzea lortu du eta azkenengo partiduetan Euskal Kopa etxeratzeo ahaleginetan gabiltza.

Honekin zera esan nahi dugu: herri batean kirola ez dela mugatzen 3 kiroltalde, beste hainbat kirol badela isilean, ahalegin handiz jo ta ke lanean ari direnak, eta gainera, kasu honetan emaitza onak lortuz. Horregatik lerro hauek kirolarekiko jende gehienak dugun ikuspegi mugatua zabaltzera eta isilean lanean ari diren talde txiki handi hauei bultzadaxo bat ematera animatzen zaituztegu.

*Mondrako Emakumezko futbolariak*

# Zein auzotako jaiak dituzu gustokoen?



**Maitane Suarez**  
Ikaslea  
(10 urte)

Batzutan bakarrik barraketan ibiltzen joaten naiz eta niretzat jai denak dira onak.



**Juan Lopez**  
Ikaslea  
(20 urte)

San Andresekoetara eta Musakolakoetara bakarrik joaten naiz eta Musakolakoak gehiago gustatzen zaizkit, giro polita egoten da eta.



**Rebeka del Hoyo**  
Ikaslea  
(11 urte)

San Andresekoak gustatzen zaizkit gehien bertan nire lagunak daude eta ondo pasatzen dut.




**Igor Jurado**  
Ikaslea  
(10 urte)

Bai joaten naiz eta onenak San Andreskoak dira. Goizetan, arratsaldetan eta gauetan joaten naiz eta primeran pasatzen dut.



**Joaquina Romero**  
Langilea  
(43 urte)

Auzoko jaietara joaten naiz eta gustokoenak San Andreskoak ditut. Giro polita egoten da, batez ere gauetz orkestrekin



**Valentin Martinez**  
Jubilatua  
(66 urte)

Orain ez naiz joaten baina lehen gustokoen Zigarrolakoak nituen. Ekintza ugari antolatzen zen ondo pasatzeko eta giroa ere ona zen.



**Pakita Zigorraga**  
Etxekoandrea  
(64 urte)

Udalako jaiak asko gustatzen zaizkit, gainera Meatzerekan bizi naizenez gertu ditut.



**Rafael Nafarrete**  
Langilea  
(39 urte)

Joaten naiz eta onenak Zigarrolakoak dira. Arratsaldean eta baita gauean ere giro jatorra egoten da.

**M**  
Altzariak  
Diseinua  
Apainketa  
**ARENAZA**  
Bizkai, 1 • ARETXABALETA  
Tel.: 79 08 07

**ZENTRO PSIKOPEDAGOGIKOA**  
Zerbitzuak:  
Diagnostikoa-Orientazioa • Estimulazio goiztiarra  
Erreabilitazio funtzionala (Psikomotritatea  
eta hizkuntz bereziera)  
Logopedia • Laguntza terapia  
Mota guztietako eskola arazoak  
Judizial peritajeak  
Ignazio Zuloaga kalea, 10 • Tel.: 79 48 77 • ARRASATE

**beatriz**  
oinetakoak  
eta poltsak  
Erdiko kale, 11  
Tel.: 79 14 33  
ARRASATE

**USTEAK USTE**

*Udalaren erdia Egunkariarekin*

**A**steazkenean Udala-Euskaldunon Egunkaria hitzarmena sinatu zen, Egunkariaren 2.000 aleak argia ikusten zuen egun berean. Euskarazko komunikabideetan dihardugunon aldetik pozez hartzen ditugu horrelako ekimenak, euskarak aurrera egin behar badu administrazioaren beharra duelako. Gehiago gainera Euskaldunon Egunkariaren kasuan, egunero berriak euskara hutsez irakurtzeko aukera ematen duen argitalpen bakarrean.

Sinaduraren puntu beltza azken plenoan aurkitzen da. EAJK eta PSE-EEK ez zioten eta akzioen erosketari babesik eman nahi izan. EAJK ez zuen zergatiarik azaldu. Ezezkoa arrazoitzeko Ignacio Jimenok, zinegotzi sozialistak, Egunkariaren ustezko pluraltasun eza aipatu zuen. Azken orduko berrietara ez iristea, gai ei zabaltasun handiegirik ez ematea, kirol orrialde gutxi izatea etab. leporatu dakioke Egunkariari, baina pluraltasun eza argudio moduan erabiltzea, labor esanda, argitalpen hori ez ezagutzea dela esango nuke.

Beñardo Kortabarria



# Arrasate Kirol Proiektuaren hitzarmena

**Alfonso Donnay**

**M**aiatzaren 5ean, Eskola Kirolaren hitzarmenaren sinadura egin zen, Udala eta Arrasateko ikastetxe guztien artean. Sinadura ekitaldiaren bidez, udalak Arrasate Kirol Proiektuari babes eta laguntza emateko borondatea adierazten du eta aldi berean, orain arteko bidean lanean jarraitzea animatzen gaitu; era berean, ikastetxeak eskola mailako kirola bultzatzen jarraitzeko konpromezua berresten dute eta AKPko zuzendaritza batzordeak kalitatezko proiektu hau gestionatu eta eskaintzeko behar den babes lortzen du.

Hitzarmenaren sinadurarekin AKPko Batzar Orokorra eratu da (Udala, ikastetxe-tako zuzendaritzek, APAS-eko ordezkariak eta zuzendaritza batzordeak). Hortik sortuko dira Arra-

saterako behar dugun eskola kirolaren oinarriko zutabeak, zuzendaritza batzordeak ahalik eta modu onenean gestiona ditzan.

Hitzarmena sinatu aurretik, AKPk izaera juridiko propioa lortzeko erronka zuen. 1997ko urtarrilean erakundearen estatutuak aurkeztu ziren Eusko Jaurlaritzan, AKPkirol elkarte legeztatu bihurtuz, modu autonomo batean 18 milioitik gorakoa den aurrekontu bat gestio-natzeko gaitasunaz.

**“  
Aurten 6 eta 13 urte  
arteko 916 ikasle  
dabiltza Arrasate  
Kirol Proiektuan  
”**

Arrasate Kirol Proiektuan, eskolaz kanpoko lehen ekintza Arrasaten, aurtengo ikasturtean 6 eta 13 urte arteko 916 ikasle dabiltza. Proiektu hau eskolaren berezko lanaren osagarria eta modu berean formakuntzari begira dagoen ekimena da. Adin bakoitzari egokitutako kirol praktika baten bidez, Proiektuan dabiltzan umeen formakuntza osoa hobetzen laguntzeko asmoa dago.

AKPren ibilaldia orain 7 urte hasi zen, eta gaur ekonomia aldetik begiratuta esan daiteke une lasaiena bizitzen ari dela. Aurtengo ikasturtearen hasieran ondorengo 3 urtetarako laguntzaren oinarriak jarri ziren udalarekin, eta espero dugu horrek kalitate aldetik nabarmen hobetzer eramatea, ez dugu eta aurreko urteetan bezala gehienbat gai ekonomikoengatik arduratu beharrik izango.

Gaur egun zuzendaritza batzordeak dituen erronkarietarik bat, denok alde berea bultzatzea izango litzateke. Mahaian 8 ikastetxeren ordezkariak dugu (baita Aramaio ere), bakoitza bere ezauzgarriekin, eta Arrasate Kirol Proiektua bat da.

Bukatzeko, aurreko zuzendaritza batzordeek egindako ahalegina azpimarratu beharko genuke. Duda barik, gu haiek egindako lanaren fruitua jasotzen gabilta. Eurenzatzat, agurrik beroena.

Alfonso Donnay, AKPko lehendakaria da

**Memesa**  
**79 42 22**

**UGARAN**  
**jatetxea**  
Garagartza auzoa  
Tfnoa: 79 76 58  
**ARRASATE**

**Lore**  
**Lurrindegia**  
Olarke kalea, 10 • ARRASATE  
Tel.: 79 52 50



astea bi hitzetan

■ **Hezibidek antolatutako azoka**

Ingelesa gaitzat hartuta, eskolen arteko lehen azoka antolatu du Hezibidek. Azoka horretan Almen, San Frantzisko Xabier, San Viator eta Umezaintzako 4 eta 12 urte arteko 2.200 ikasleek parte hartuko dute. Ikasleak inguruko kiroldegietara joango dira, eta ingelesez hitz eginez hainbat jokutan parte hartzeko aukera izango dute.

Azoka berezi horren berri emateko astelehenean eman zen prentsaurrekoan esanenez, ikasleek parte hartu dute azokaren antolaketan, eta era horretan euren motibazioa bultzatuz.

■ **AEK-ren enkartelada**  
Presoen aldeko enkartelada egin zuten AEK-ko kideek

joan den ostiralean. Horretarako, Arrasateko euskaltegiko irakasle eta ikasle batzuk azokaraino joan ziren enkartelatu. Ekintza horren bidez, presoen hizkuntza eskubideak aldarrikatu, eta presoei Euskal Herrian egotea eskatu zuten.

Joan den astean, gainera, presoen egoerarekin zerikusia duten testuak landu zituzten klase orduetan ERDU-AEKko ikasleek. Senideek martitzenetan egiten duten enkarteladan ere izan ziren.

■ **“English day” institutuan**

Astelehenean “English day” eguna ospatu zuten institutuan derrigorrezko bigarren hezkuntza ikasten duten ikasleek. Hori dela eta, ingelesez antzeztan duen

antzerki talde baten obra bat izan zuten ikusgai.

Aurtengo ikasturtean hasi dira institutuan ingelesaren inguruan ekintza bereziak antolatzen, baina esperientzia ona izan denez datoren ikasturtean ere ekintza gehiago antolatuko dira.

■ **Deba Garaiko ume kantariak**

700 ume kantuan aritu ziren joan den zapatuan San Frantzisko Xabierrek antolatutako X. Abesbatza Topaketan. Guztira 17 abesbatz elkartu ziren Amaia antzokian, guztiak Deba Garaikoak. Goiz partean txikiak emanaldia izan zen, eta arratsaldean gazteena.

Antolatzaileen esanetan, umeengan kantu zaletasuna piztea da topaketaren helburu nagusia.

“Lezetxikin aurkitu den humeroa ez dago dataturik, baina morfologiari begiratuta esan dezaket guk *Sima de los Huesos* delakoan aurkitu ditugunen antzekoa dela. Gurek 300.000 urteko antzinatasuna dute. *Lezetxikikoak* 100.000 edo 200.000koa? Euskal Herrian Goi Pleistozenoko aztarna asko dugu, baina Erdi Pleistozenoko gutxi, eta horregatik *Lezetxiki garrantzitsua da*”.

**JUAN LUIS ARSUAGA,**  
Egin,  
1997-5-16

*Babes ekonomikorik ezean, 1968an indusketalanei utzi behar izan zientetik Lezetxikiko aztarnategiaren egoera gero eta larriagoa da. Azken urteotako gainbehera erabateko galera suposa liteke, ez badira jadanik neurri gogorak hartzen. Iazko udan lan talde bat aritu zen hilabetez, 250.000 pezetako dirulaguntza zutelarik: edozein espezialista amerikarrek pozarren ordainduko lukeen dirua. Ordudanik panorama okerragotu egin da... indusketetako zuzendariak bere kexak euskal administrazioari azaldu dizkionean... aitzakiak izan bide dira erantzuna”.*

**JOSEMARI VELEZ DE MENDIZABAL**  
*Periodico de Alava*  
1997-5-14



**TRENAREN ETA AUTOPISTAREN BIDETIK**

Administrazioak Aegindako proiektuen arabera, abiadura handiko tren eta autopista zein tokitik pasatuko diren ikusten izan zen hainbat lagun zapatuan. Batez ere Eskoriatza inguruan ibili ziren martxa kideak. Euren ustez, paisaia eta ondare kulturala kaltetuak izango dira bi proiektuekin.

*Sili Sili*  
**Martxa eta estilo handiko erropa**  
Iturriotz, 9 • ARRASATE  
Tel.: 79 81 82

**PEÑAKOBA**  
Zarugalde, 46  
Tel.Faxa: 79 29 93  
ARRASATE  
Lizaur arkitektoa, 7  
Tel.: 78 05 60  
OÑATI

**Hilbera kafetegia**  
Uribarri Etorbidea  
ARRASATE  
Tel.: 79 22 70


# Komertzioez betetzen ari da Mugarrieta

## Pabiloi berri bat egiten ari dira iharduera ekonomikoetarako

Arexabaterako bidean dagoen Mugarrieta aldea komertzioez betetzen ari da. Laster supermerkatu berria zabalduko da baina horrez gain, pabiloi berri bat eraikitzen ari dira parean. Udalak ez daki pabiloi berrian zehazki zein komertzio joango diren, lursaila erosi duen promotoreak ez du jakinarazi oraindik zein komertzio jarriko diren eta. Hala ere, aurrera daiteke altzariak saltzeko almagazak zabaltzeko asmoa dagoela besteak beste.

Teknikoki obra handiak egiten ari dira Mugarrieta aldean, eta obraren kostua ere promotoreek ordaintzen dute. Behin obra eginda, gainera, urbanizazio pribatua deituta-koa egin behar da.

Epe motzera hainbat komertzio irekiko da Arexabaterako bidean, eta oraindik geratzen da tokia



Azkenaldian hainbat pabiloi eraiki da Mugarrieta inguruan.

beste pabiloi berri batzuk egiteko. Mugarri ondoan, adibidez, kate alemaniar batek

supermerkatu bat zabaltzeko asmoa du. Udalaren oniritzia badu etxe alemaniarrek, bai-

na oraindik ez dute Udaletxean proiekturik aurkeztu, ezta obrekin hasteko asmorik azaldu ere.

Mugarrietako garapena Udalak bere garaian inguruen urbanizazioa bultzatu eta gero dator. Udalak urbanizazioaren gestioa egin, baina ordaindu, lursailen jabeek ordaindu zuten. Horrek bere garaian eztabaida ekarri zuen, hainbat jabe ez zen ados azaldu sistema horrekin eta.

Mugarritte ingurua iharduera komertzialeterako, eta Markulete aldera industriari erakarri nahi dira. Horretarako, lursailak erosi ditu Udalak baina oraindik ez dira obrak hasi. Oraingoz, lursailaren sailkapena egiten ari dira.

Markuleten lursail industrialak erosteko proposamena EAJK, PSE-EEK eta EAK egin eta onartu zuten.

## Enpresa Ekintzetarako Zentroa urbanizatzen hasiko dira

Udalak baimena eman dio Deba Garaiko Mankomunitateari Enpresa Ekintzetarako Zentroaren urbanizazioarekin hasteko.

Zaldibarko ikastetxe ondoan ari da eraikitzen Manko-

munitatea enpresa ekimenak sortzeko tokia, eta zentroa aurreratuta dagoenez orain urbanizazioarekin hasi dira. Uztaillaren lehenengotan inauguratuko da Enpresa Ekintzetarako Zentroa.

## Arratoiaren aurka egiteko 869.000 pezeta gastatuko dira

Hemendik eta urtearen bukaera arte 869.000 pezeta gastatuko ditu Udalak arratoiaren aurkako lanak egiteko. CESPAn enpresa arduratuko da lan horiek egitearekin.

CESPAn pozoia erabiltzen

du arratoiaren aurka egiteko. Batez ere arratoiak apurka-apurka hiltzen dituen pozoia erabiltzen da, arratoia berehala hiltzen bada gainontzekoek ez dute jaten eta. Pozoia ere sarri aldatzea komeni izaten da.

**SARA**  
MERENDERUE  
Tel.: 58 50 25  
Tel.: 77 15 86

**Zuri Garbiketak**

- Garbitasun orokorrak eta mantenimendua: etxebizitzak, atariak, dendak, bulegoak, kristalak, etab.
- Edozein zoru motari dizdira ateratzea.

Santana auzoa, 4 etxabea Tfnoa: 71 48 45 ESKORIATZA

**LAKET**

Bonaventure • Diesel  
Pepe • Levis

Otalora, z/g Behea ARRASATE  
Tel.: 79 11 72

# Behin errepetidorea jarrita, telebista kate guztiak ikusiko dira Gesalibarren

Asteazkenean Murugainetik telebista ikusteko aparatuak kendu, eta Gesalibarko Santaatx mendixkara eraman zituzten. Asmoa, ostegunean Santaatxen instalazioa jartzea zen, eta horrela, hemendik aurrera telebista kate guztiak ikusiko dira Gesalibarko etxe guztietan. Behin aldaketak eginda programak beste era batera ager daitezke eta, antenaren posizioa aldatu beharko da kasu horietan.


Errepetidorea jarri du Udalak auzo horretako etxebizitzaren guztietan telebista seinalea jasotzeko, eta errepetidoreak energia elektrikoaren

bidez zabaltzen du seinalea. Gesalibarren ez dute Arrasate Telebista ikusten, ezta Espainiako hiru kate pribatuak ere (Antena 3, Tele 5 eta Canal Plus). Auzoaren goi aldean dauden baserri batzuetara heltzen zen seinalea, baina ez auzo barruan zeuden etxebizitzera, eta horregatik, batzuk kablea bota izan dute.

Aspaldiko ametsa dute Gesalibarkoek telebista kate guztiak ikustea, eta urteetan ibili dira Udalarekin arazo hori konpondu nahiez. Errepetidorea jartzeko eskumena Jaurizarrena zegokiola eta, asko kostatzen da baimena lortzea.



ATB, Tele 5, Antena 3 eta Canal Plus kateen seinaleak ez dira heltzen.



## 2.000 zenbakia kaleratzean Udala Egunkariaren akziodun

Asteazkenean bihurtu zen Udala Egunkariaren akziodun, *Euskaldunon Egunkariaren* 2.000garren zenbakia kaleratu zen egunean.

Eguerdian Egunkariako ordezkariak Udaletxera etorri, eta alkateak akzioen erosketa jasotzen duen agiria sinatu zuen. Alde biak pozik azal-

du ziren egindako erosketarekin.

Akzioak erosiz Udala Egunkariaren partaide dela eta, pozik azaldu zen Juan Luis Arexolaleiba, Euskara Batzordeburua.

Guztira 40 akzio erosi direnez, milioi bat pezeta zuzendu ditu Udalak.

**TOKION**  
ELEKTRONIKA  
ARTIKULUEN SALMENTA  
Erdiko Kale, 7  
Tel.: 79 91 64 • ARRASATE

**PEUGEOT**  
Salmenta eta zerbitzua

**IBABE  
GARAJEA**

**MEKANIKA, TXAPA ETA PINTURA**  
Gesalibar auzoa, z/g. Tel.: 79 99 61 • ARRASATE

**SIRIMIRI**  
Zure gustoko arropa!  
Erdiko kale, 42  
Tel.: 79 64 42 • ARRASATE

# Abiadura Handiko Trenari Udalak egindako iradokizunak

Abiadura Handiko Trenaren inguruan egin duten aurrerapena bidali du Jaurlaritzak Udaletxera, eta orain bi hilabeteko epea zabaldu da iradokizunak aurkezteko.

Udalaren Hirigintza Batzordeak eman dio begiratua hiru alternatibajasozten dituen planari, eta iradokizun batzuk egin ditu. Iradokizunetan esatenenez, bi alternatibek lurraldearen okupazio bortitza, bizi kalitatearen murrizketa eta Leze Txikiko esparrua hondatzeko arriskua ekarriko dute. Horregatik, bi horiek bazterzea eskatzen da.

Udalaren ustez, trenaren ibilbidea egitean kontuan izan behar dira lur-isurtegiak ondo



Leze Txiki hondatuko duten alternatibak bazterzea eskatu du Udalak.

antolatzea eta errekak gurutzatzerakoan ondorioak aurreikustea. Bestalde, hirigintza egoeraren azterketa egitean akatsak daudela esa-

ten da.

Bukatzeko, Deba Garaian geltoki bat egotea komenienez, horrela egitea eskatzen da.

## Jendetzarik ez kontzertuan

Ez zen jende askorik joan Chernobylgo umeen alde igandean egin zen kontzertura.

Amaiako takilan 42.000 pezeta jaso ziren (beraz 84 sarrera saldu ziren), baina Fagorren eta beste herri batzuetan saldutako sarrerekin beste 45.000 pezeta lortu ziren. Bestalde, apirilean Goikobaluk eta Legazpiko abesbatzak Arrasaten eskaini zuten kontzertuan bildu ziren 26.000 pezetak ere Chernobyl elkar-teak jaso ditu.

Zapatuan, gainera, hainbat ekintza egin zen herriko plazan. Txalapartariak eta trikitilariak eskaini zuten emanaldia besteak beste, eta eguraldi txarragatik Tunantes del Norte taldeak ezin izan zuen antzeztu.



# SIKOL

LENTZERIA

**Bainujantzitan  
aukera  
paregabea!**

Olarte, 31 • ARRASATE • Tel.: 79 89 32

12 faszikulutan

# MUNDUKO ATLASA



**MUNDUA • KONTINENTEAK**  
**ESTATUAK • ESTATURIK GABEKO HERRIAK**  
**EUSKAL HERRIA**



asteazkenero eta larunbatero  
**Egunkaria** rekin

390 pta  
16 libera

Maiatzaren 10ean eta 11n tapak eta  
Euskal Herriko errepideen mapa dohainik



## NEGARRARI EZIN EUTSI

Dionisio Zabarte da antiojudun gizona, eta domekan omenaldia egin zioten Gesalibarko eta Garagartzako organojolea denari. Dionisiok ezin izan zien malkoei eutsi, omenaldiak benetan hunkituta utzi zuen eta.

## UGARTE, MORITO ETA BIAIN

Jose Mari Ugarte txistulariari urrezko astakiloaren saria eman zioten Musakolako jaietan. Hor dituzue argazkian: txistularia, *Morito* astoa eta Juan Inazio Biain, Musakolako alkatea.



### IBARRA Garajea S.L.



Garajea  
Automobil-konponketa  
Grua zerbitzua

### Plus Ultra taberna

Maalako Errabala, 17  
ARRASATE  
Tel. 79 20 57

### UGARTE

Industri  
hornidurak

Arrasate pasealekua  
Tel.: 79 83 96 / 79 23 00  
Fax: 793412

Erdiko kale. 79 19 37




Ferrerias. 79 87 62

**MONTILLA ARRASATERA** Montillako udal korporazioa Arrasatera etorri zen Al Andalusek gonbidatuta. Guztira 23 zinegotzi daude Montillako Udaletxean, baina Arrasatera 11 etorri ziren. Al Andaluseko kideen %20a jatorriz Montillakoa denez, herri horrekin harreman estuak dituztela eta etorri ziren Cordobako lagunak.



**MECA**  
**GRUA ZERBITZUA**

Grua tel.: 989 34 98 29  
Renault Asisten.: 900 365 000  
24 orduko zerbitzua 365 egunetan



## IZENAK

### FAGOR

taldeko enpresetako zuzendaritza batzordeetan aldaketak egon dira: Fagor Sistemas-eko presidentea Jose Mari Eizagirre izango da hemendik aurrera. Fagor Ederlanen, berriz, Jesus José Boleas, Mikel Ugarte, Fidel Amozarrain, Iñaki Zubizarreta eta Juan M<sup>a</sup> Arriolabengoa aukeratu dituzte zuzendaritza osatu dezaten. Azkenik, Fagor Electrodomesticos-en ere berrikuntzak daude, Javier Gantxegi da presidente berria eta berari laguntza emateko, Belen Kortabarría, Elena Goirizelaia, Jose Luis Andrés, M<sup>a</sup> Asun Pagoaga, Bixente Elorza eta Juan Ramón Aranguren.

## AURTEN 50 URTE


1947an jaiotakoek, beraz, aurtén mende erdi betetzen dutenek, bazkaria egin zuten larunbatean. 105 lagun joan ziren bazkaria, eta txori batek esan digunez gaztetan bezala pasatu zuten: zoragarri. Urteak bete arren, umorea ez dela galtzen!



## • ARTEA •

Eskulanak eta lientzoak  
ENMARKAZIOAK  
Laminak, Izpiluak,  
Margoak  
Ferrerias, 11 Tel.: 77 10 95  
ARRASATE

**PUB  
HAIZEA**



## ITSASKI

ARRANDEGIA

Arrain freskoa  
eta jaki izoztuak  
Urbe Auzoa  
ARRASATE  
Tel.: 79 98 94

*Opari zuzena*

Zuretzat,  
kartera  
hau.

**Superlibreta  
baten titularra  
izateagatik baino ez.**


Ekainaren 30ean zure Superlibretan 150.000pta.tik gorako saldoa baduzu eta saldo hori apirilaren 1ean zenuenaren parekoa edo handiagoa bada, larruanitzeko Kartera praktiko bat lortuko duzu.

Gainera, apirilaren 1ean zenuen saldoa gutxienez 150.000 pta. handitu baduzu, Nojako Apartamentu baten zozketan ere parte hartuko duzu.

Ikus dezakezunez, Superlibretak %4rainoko interesa emateaz gain, sorpresa atseginak ditu.



**Nojan dagoen  
apartamentu baten  
zozketa, 9 milioitan  
baloratutakoa.**



**CAJA LABORAL  
EUSKADIKO KUTXA**





Hasierako urteetako bazkide talde bat lagun artean eta giro ederrean primeran pasatzen.

# Udalpe

## 50 urte lagun artean

1947ko maiatzaren 26an 30 lagunek ofizialtasuna eman zioten Udalpe elkarteari. Elkarte horrek 50 urte bete-ko ditu etzi. Denbora hone-tan Toribio Agirre kalean lehe-nengo eta Iturriotzen ondo-ren, Arrasateren historiaren zatitxo bat izatea lortu du elkarteak, besteak beste, Udalpek sortu zuen eta San Juanetako tanborrada. Egun hauetan euren eguneroko mus eta tute partidatxoei eta lagun arteko tertuliei hutse-gin barik, ospakizunetan mur-gilduta daude Udalpeko lagu-nak.

**H**ogeitamar lagune-ko talde batek sor-tu zuen Udalpe elkarte-a 1947an. Lagun hauek Zaru-galde kalean zegoen Musibar tabernaren txoko batean elkar-tzen ziren, tabernara joaten ziren gainontzeko bezeroen-gandik aparte. Txoko horretan jaio ei zen elkarte kultural bat egiteko ideia. Orduan, Danok-Bat eta Casino ziren herrian zeuden elkarte bakarrak.

### HISTORIA APUR BAT

30 lagun horiek, Udalpeko lehen bazkide izango zirenak,

lokal propio baten beharra iku-si zuten, eta horrela Toribio Agirre kaleko 14. zenbakian zegoen lokal bat alokatu zuten. Kuota modura, 500 ptako diru-kopurua jarri zuten. Lehenen-go lehendakaria Florencio Garai izan zen; lehendakari-orde Emilio Lagunilla; idaz-kari Gregorio Yarza; diruzain Leon Mondragón eta bokal-ak Ambrosio Aranburu eta Vicen-te Etxebarria.

Udalpe elkarte-a sortu eta bi urtera, lehendakariz aldatu zuten. Jesus Alberdi izendatu zuten posturako, baina garai hartako gorabehera politiko-

ak medio, Gobernadore Zibi-lak ez zion utzi Alberdiri lehen-dakari kargua hartzea. Arra-zoia? Francoren aurkako mili-tantzia taldeetan aritzea. Bes-te lehendakari baten beharra zegoen eta lehendakari hori Pablo Garai izan zen. 1949an hartu zuen Udalperen lehen-dakaritza, 31 urte zituela.

Bere lehenengo urteetan, Udalpek hasierako 30 bazki-deekin egiten zuen aurrera, muga hori arazo bihurtzen hasi zen arte. Hain bazkide gutxi-rekin laster etorri ziren diru ara-zoak. Garaik orduan Udalpe-ko atea jende berriari zabal-

tzea proposatu zuen. Bere proposamenari emandako ezezkoa izugarria izan ei zen.

Pablo Garaik bi urte egin zituen lehendakaritzan. Ondoren Ambrosio Garaik hartu zuen ardura hori. Diotenez, Ambrosiok jaramon gutxi egiten zien urteroko batzar orokorre eta bost urte igaro zituzten derrigorrezko bilera horiek egin barik. Ambrosiok dio bere deialdiei inork ez zenez kasurik egiten pasibitatearen alternatiba aukeratu zuela.

1952ko ekainaren 17tik 1957ko maiatzaren 24ra arte izan zen Ambrosio Garai Udalpeko lehendakari. Ostean Pablo Garaik hartu zuen berriz ardura hori era anekdotikoan. Nola? Zortzi lagun elkartu ziren Udalpen afari bat egiteko baina elkartera heldu eta han ez zegoen ez ardorik ez coñakik. Zeukaten sukaldean ezin zen ganorazko afaririk egin ere, beraz, zerbait praktikagoa egiteko aprobetxatu zuten zita hura. Angel Garaik, Emilio Indak eta Pablo Garaik batzar orokorra deitu zuten eta handik irten zen azken hau lehendakari.

Eta berri bat hasi zen orduan Udalpen. Elkartearen etorkizunaren ikerketa bat egin zuten eta tartean Toribio Agirreko lokala erostearen aukera aztertu zen. Lokala Eloorrioko al baitari batena zen. Udalpekoek erosketaren proposamena egin ziotenean, honek sekulako haserre hartu zuen, aurrez ez zutelako erosterik nahi izan. Hain handia izan zen haserre, lokala ez saltzeaz gain, bertatik bota



Udalpen badira bazkide batzuk ia egunero elkartetik bueltatxo egiten dutenak jokoan egitera.

egin zituela. Beharrak eraginda, lokal berri bat bilatzen hasi ziren. Makina bat anekdota tartean, azkenean gaur egungo egoitza inauguratu zuten 1958ko ekainaren 22an Iturriotz kaleko 2an. Egoitza berriaren inaguraketarekin batera, bazkide gehiagori zabaldu zitzaizkion ateak. Guztira 250 bazkide ziren.

### TANBORRADA

San Juan jaietan herrian egiten den tanborrada Udalpe elkarteari zor zaio. Jose Markiegi sastrearen ideia izan zen tanborradarena. San Juan bezperan espektakulu bat falta

zela herrian esaten zuen Markiegi eta berari bururatu zitzaion Donostiako tanborradaren antzeko bat egitea. Udalpe bere gain hartu zuen proposamena eta horrela, 1961ean egin zuten lehen tanborrada. Jantziak Donostian alokatu zituzten.

Luis Maria Maidagan tanborrero nagusi izan zen lehen bost urtetan. Bere esanetan, lan zailena musikalitate zentzu gutxi edo ezer ez zuen jendea gidatzea zen. Mahai gainean makilekin eta koilarekin entsaiatzen zuten. Umorea eta gogoia erabatekoa zen.

Jose Luis Mendietak hartu zuen Maidaganen lekukoa

eta honek armonia eta batasuna eman zion tanborradari. Bere ostean Rafa Aresti izan zen tanborrero nagusi. Horrek 8 urtez eraman zuen zuzendariaren makila. Esan behar da 1967an SUDCek hartu zuela tanborradaren ardura. SUDC elkarte San Isidro, Udalpe, Danobat eta Casino elkarteek osatzen zuten.

Ezin ahaztu daiteke herriko udal banda. Juanito Arzamendik zuzentzen zuen eta tanborradako gizonak egiten zituzten hankasartzeak ezal-tzen zituen.

Arrasateko tanborradak, herrian ezezik, Basaurin, Karrantzan, Markinan eta Gal-

*Zarugaldeko Musibar tabernan biltzen zen lagun talde batek su bano ez ziren eta gainera, askok ez zuten kopuru hori handitze 14. zenbakian zegoen. Lokala erosi nahi izan zutenean, jabea has*



Elkarte guztietan bezala, Udalpen sukalde eta sukaldari apartak dituzte.

dakaon ere parte hartu zuen, SUDCen antolakuntzapean.

## 50 URTE ETA GERO

50 urte eta gero ez da erraza esatea Udalpe asko edo gutxi aldatu den. Elkarteko bazkideek hobeto esango lukete hori, barrutik ezagututa errezagoa da eta. Kanpotik berriz, bai antzeman daitezkeela aldaketa batzuk. Adibidez, 1986. urtera arte emakumeak data seinalatueta baino ezin ziren Udalpera sartu, San Juanetan, abuztuko oporretan, Karnabaletan eta abarretan. Eli Alzola Udalpeko bazkide da 1972tik. 48 urte ditu eta elkarteko zuzendaritza batzordean dabil. Bera gazteenetarikoa da, bazkidegoaren batz besteko adina 60 urtekoa da eta. Esaten duenez, 1986an bozketa egin zutenean emakumeen sarrera librea

erabakitzeke, 70 gizonen ezezkoa eman zuten eta 30ek baino ez baiezkoa. Azkenean, baiezkoa erabaki zuten emakumeak elkartera joaten zirenean izugarri igotzen zirelako tabernako salmentak, eta elkarteari bizitasuna ematen ziotelako.

Belaunaldi gazteei dago-kionez, Eli Alzolak dio gazteak lagunekin afariak egiteko baino ez direla Udalpera joaten. "Hau ez da euren giroa" esaten du Elik, eta neurri batean normala iruditzen zaio. Udalpen 270 bazkide badira ere, egunero-egunero elkartera joaten den kopurua askoz txikiagoa da. Joaten direnak kartetan jolastera doaz. Han ez dago telebistarik, futbolinik edo billarrik.

Aipatzekoak dira ere 1989an egin zituzten obrak. Sukaldea lekuz aldatu, armairu berriak jarri eta komun bat gehiago ipini zuten.

Gaur egun Jose Rodriguez 63 urteko gizona da Udalpeko lehendakaria. 14 urte daramatza lan hori betetzen eta esaten dutenez, primeran.

Orain ospakizunetan dabilza Udalpekoak. Etzi mende erdia beteko du elkar-teak eta hori ez da egunero ospatzen. Horregatik meza izango dute goizean, eguerdian kalejira Arrasate Musi-kaleko bandarekin eta Udalpeko tanborradarekin. Pilota partiduak ere izango dira Zaldibarren eta azkenik, bazkaria egingo dute. ■


Maidar Egues

## Pablo Garai, UDALPEREN HISTORIAREN LEKUKOA

**P**ablo Garai lagun artean egotea eta aspaldiko kontuak gogoratzea gustoko duen horietakoa da. 79 urte ditu eta Udalpe elkarte sortu zuten 30 lagunetakoa bat da. Gaur egun bera eta Ambrosio Garai dira talde hartatik bizirik geratzen diren bakarrak.

Puroa eskuartean duela, Udalpe 50 urtetan aldatu egin dela esaten du, baina gauza batzuetan berdina ere badela. Hasiera hasieratik gaur arte, Udalpen anaikidetasun giroa arnastu dela dio. Bera lehendakari egin zutenean zera esan ei zuen: "Egon dadila beti anaikidetasun eta lagun giroa. Udalpe izan dadila arazoak ahaztu eta lagunak egin eta lagunekin egoteko tokia. Aupa Udalpe!", eta dirudienez, oraindik hitz horien ohiartzuna entzuten da Udalpe elkarteko hormen artean.

Egun hauek bereziak dira Pablorentzat. Orain dela 50 urteko kontuak etortzen zaizkio burura, berak 29 urte zituela Udalpe sortu zuenean beste 29 lagunekin batera.



zuen Udalpe elkarte 1947ko maiatzean. Hasieran 30 bazkide nahi. Udalperen lehen lokala, alokairuan, Toribio Agirre kaleko etu eta kanpora bialdu zituen. Ondoren gaur egungora joan ziren.

Born Jay taldeko txirrindularia

## OSKAR ASKASIBAR

**“Elgetako lasterketa irabaztea gustatuko litzaidake”**

— **Bidasoako Itzulian zer moduz?**

— Lehen etapan 11. postua lortu nuen eta lehen gipuzkoarra izan nintzen. Ostiralean 9.ena. Esperientzia moduan oso ona izan da niretzat eta baita Born Jay taldearentzat ere.

— **Iaz baino hobeto zabilta?**

— Oso regular nabil eta sarritan sartzen naiz aurrean baina lasterketaren bat irabaztea falta zait. Iaz prestakuntza batekin hasi nintzen aurten bigarren urtea da eta dagoeneko emaitzak igertzen nabil.

— **Ze ezaugarri dituzu?**

— Denetarik egiten dut; aldatz gora ondo defenditzen naiz, sprintean eta lauan ere ez nabil txarto.

— **Zure helburua falta den denboraldirako?**

— Lasterketa bat irabaztea eta nire herrikoa bada, Elgetakoa askoz hobeto.

— **Afizionatuetako talde sendoenak?**

— Betikoak, Banesto, Olarra, Baque, Banaka.

— **Zure burua ikusten duzu profesionaletan?**

— Oso zaila da, gainera Estatuan ekipo profesional gutxi dago. Aurten esatebaterako Euskadi taldera bi bakarrik igo dira.

— **Gustoko txirrindularirik?**

— Talde moduan Once. Txirrindulari berezirik berriz ez daukat. Lehen Marino Lejarreta nuen gogokoan.




## FUTBOLA Denboraldia akabo



Rotetaren kontrako partiduarekin Mondrak agur esango dio 96-97 denboraldiari. Zapatuan arratsaldeko 4etan jokatu dute talde biek Herreran. Mondrak Zarautzen kontra galdu ondoren igoerako promozioa jokatzeko aukera guttiak galdu zituen. Orain helburua hirugarren tokia eskuratzea da eta horretarako azken partiduan ere hiru puntuak behar dituzte. Donostiarrak sailkapeneko 7. tokian daude 57 punturekin. Ezer jokoan ez dagoenez itxuraz partidu polita izan daiteke. Datu moduan esango dugu Atxabalpen Mondrak 3 eta 1 irabazi ziola Rotetari. Neurketa aurrera ateratzeko Jesus Mari Barrutiabengoak jokalarari gehienak gertu izango ditu. Alberto Matalobosek ezingo du jokatu azken partiduan txartel gorria ikusi zuelako. Bestalde datorren denboraldian taldean bi baja ziur egongo dira, Juan Luis Aranburuzabala eta Igor Areitio Eibarko atezaina. Hauek dena dela ez dira baka-rrak izango. Oraindik hainbat jokalariren jarraipena zalantzan dago eta ondorengo egunetan argitzea espero dute.

Emakumeek Kopako azken partiduan Azpeitiko Lagun onak taldea izango dute nor baino nor. Azken partidua izango da Mondra finalerako ez bada sailkatzen, baina esan behar horretarako badituela aukerak. Arrasatearrekin zapatuan irabaziko balute finalera joango lirateke zuzen zuzenean. Lagun Onak taldearen aurkako partidua zapatuan arratsaldeko 4.30etan jokatu da Azpeitiko futbol zelaian.

## ESKUBALOIA Kopan petral



Arrasate eskubaloia taldeak kopako azken partidua jokatu du Iturripen domekan eguerdiko 12etan Leizaran taldearen kontra. Arrasatearrekin gaur arte lau partidu irabazi dituzte eta lau galdu. Azken tokian daude 8 punturekin. Domekan irabazten badute hirugarren postuan gera daitetzke Allerru eta Loiolaren atzetik.

## TXIRRINDULARITZA Born Jay taldea gero eta indartsuago

Born Jay taldeko txirrindulariek maila polita erakutsi dute Bidasoako itzulian. Lehen etapan Oskar Askasibarrek 11. postua lortu zuen. Ostiralekoan Iñigo Carbalho izan zen lehena eta Oscar 9.ena. Datorren domeka goizean Murgian izango den Euskadiko txapelketan hartuko dute parte Arrasateko afizionatuek.

## PILOTA Etxetik kanpo lehian



Arrasateko Dominguez Iiak eta Etxeandiak infantil mailako pilotariek Zaramaga torneoko finalerdiak jokatu dituzte zapatuan Gasteizen Abadiñoko pilotarien kontra. Gasteizen ere Zubillagak eta Uribarrenek Santa Luzia txapelketan hartuko dute parte arratsaldeko 4etatik aurrera. Zapatuan gaueko 9.30etatik aurrera Arregi, Perez II eta Bolinaga aurrebenjaminek Berri-zen izango dute zita.

# Alazne Ruiz de Munain eta Fernando Nogales denbora onenak

Arrasate kirolak taldeko atletak Donostian izandako proba puntuagarrietan izan ziren. Guztien artean Alazne Ruiz de Munainek 600 metroan egindako denbora aipatu

behar, minutu bat eta 44 segundu eta baita ere Fernando Nogalesena 1.000 metroan, 2 minutu 48 segundu eta 80 ehuneneko. Biak kadeteak dira. Bestalde dato-

rren domekan Gasteiz hiria sarian izango dira arrasatearrak J.A. Del Campo memorialean parte hartzeko. Mendizorrotzan izango dira lasterketak.

## Donostiako txapelketako emaitzak:

### 100 metro

Unai Sarabia .....	11"46
Manu Anguas .....	11"71
Lorenzo Avila.....	11"78
Martin Davila .....	12"04
Remi Diosdado.....	12"27
Ibai Jurado.....	12"53
Oscar Gavilan.....	12"64

### 200 metro

Manu Anguas .....	23"30
Remi Diosdado.....	24"85
Ihantz Bengoa .....	29"99

### 300 metro hesi

Jonathan Perez .....	44"46
Maitane Arizmendiarieta .....	50"52

### 600 metro

Alazne Ruiz de Munain .....	1'44"
-----------------------------	-------

### 800 metro

Felix Sanchez.....	2'01"
Oliver Fernandez.....	2'06"
Iban Juez .....	2'11"

### 1.000 metro

Fernando Nogales .....	2'48"80
Iñaki Juez .....	2'51"20

### Altuera jauzia

Jokin Diaz de Lezana.....	1,87 metro
---------------------------	------------



Karateka gazteak bide onean.

## Saioa karate eskolakoak Udaberri txapelketan

Udaberriko karate jaialdia egin zen domekan Altzan. 7 urtetik 13 urtera arteko 200 karateka elkartu ziren eta Saioa eskolak 35 neska mutil eraman zituen. Proba desberdinak egon ziren gerriko zuri-tik beltzeraino. Alebinetan Arrasateko Joel Medranok hirugarren postua eskuratu zuen. Joel gerriko urdina da. Alebin emakumeetan bigarren Marta Tijero sailkatu zen gerriko zurien mailan. Infantil emakumeetan berriz, zilarrezko domina Laida Ramos-ek lortu zuen. Laidak gerriko urdindunen artean egin zuen lehian. Hiru hauek dominak lortu bazituzten ere, taldeko beste 12 karatekek azken fasera heltzea lortu zuten. Iñaki Muñoz entrenatzaileak beraz, txapelketaren gaineko balorazio positiboa egin du. Karateka gazte hauentzat bukatu da denboraldia. Iraitler arte ez dute txapelketa ofizialik izango. Hilabete haue-tan teknika hobetzeko egin beharko dute lan entrenamendutan. Izan ere, denbora gutxi barru gerrikoz aldatzeko graduazio azterketak izango dira eta.

## Bi xake txapelketa izan dira asteburuan Musakolan

Xake azkarra eta aldi berekoa jokatu ziren asteburuan Musakolako San Antolin herri eskolan. Zapatu goizean 12 xake jokalariek elkartu ziren xake azkarreko 22 partida jokatzeko. Era honetako txapelketetan jokalariek bakoitzak bost minutu izaten ditu piezak mugitzeko. Txapelketan berdinketa egon zen Arrasateko Hernando eta Eibarko Esandiren artean. Biek 10 puntu lortu zituzten. Berdinketa hausteko lehian arrasatearra izan zen jaun eta jabe. 3.a Rodriguez eibartarra 7,5 punturakin. Laugarrena Freire. 5.ena Mikel Hernando 6 punturakin Axpe eta Loli bezala.

Zapatu arratsaldean aldi bereko xake txapelketa jokatu zen. Kanariar irletako Jose




Jose Migel Fragera xake maisua eta antolatzaile bat.

Migel Fragerak 10 jokalariren kontra jokatu zuen. Xakeko maisu honek partida guztiak ordu térdiko denboran irabazi zituen. Domekan berriro aldi bereko txapelketa protagonista. Jesus Berezibar arrasatearrak 9 aurkari izan

zituen aurrean eta ordenagailu programa bat. Jokalariak 2 orduan gaintu zituen baina ordenagailu programa ez. Programa Friez-4 zen eta tresna Arrasateko Deet enpresak utzi zuen, ordenagailu portatila.

# Batzuk pozik besteak triste



**T**xapelketa aurrera doan neurrian normala da tristurak eta poztasunak agertzen hastea. Fase hauetan garai-penak urrearen balioa izaten du. Galtzeak berriz txapelketa uztea ekar dezake. Horregatik ikusmin berezia izaten dituzte partiduek kantxa barruan eta kanpoan.

## Sailkapenak

A taldea	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT.
	Jokat.	Irabaz.	Berd.	Gald.	Aldo	Aurk.	Guzt.
Fosforos	2	2	0	0	13	6	<b>4</b>
Betrayer	2	1	0	1	9	9	<b>2</b>
Diego Antonio	2	1	0	1	8	8	<b>2</b>
Insert Coin	2	0	0	2	4	11	<b>0</b>

B taldea	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT.
	Jokat.	Irabaz.	Berd.	Gald.	Aldo	Aurk.	Guzt.
Naranja Mekanika	2	2	0	0	21	4	<b>4</b>
Galartza Kont.	2	2	0	0	12	3	<b>4</b>
Aurrera Bolie	2	0	0	2	5	17	<b>0</b>
KK jaurlearitziari	2	0	0	2	2	16	<b>0</b>

D taldea	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT.
	Jokat.	Irabaz.	Berd.	Gald.	Aldo	Aurk.	Guzt.
Irati STS	2	2	0	0	13	7	<b>4</b>
Cerveceria Leintz	2	1	1	0	11	7	<b>3</b>
AC surcos	2	0	1	1	6	7	<b>1</b>
MSM Ing. Int.	2	0	0	2	8	17	<b>0</b>

E taldea	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT.
	Jokat.	Irabaz.	Berd.	Gald.	Aldo	Aurk.	Guzt.
Sokoakoak	2	2	0	0	11	7	<b>4</b>
Sortu Informatika	2	1	0	1	7	7	<b>2</b>
Orlando Piratas	2	1	0	1	9	4	<b>2</b>
Nuevo taberna	2	0	0	2	4	13	<b>0</b>

**aldibi**  
Zigorrola, 1 • 1. pabiloia  
Tel.: 71 20 02

## Hurrengo partiduak

**Maiatzak 24, larunbata**

**Zaldibar**

- 10.00 KK Jaurlearitziari - Aurrera Bolie
- 11.00 Naranja Mekanika - Galartza Kont.
- 12.00 Diego Antonio - Betrayer
- 13.00 MSM ingenieria Integral - AC Surkos
- 14.00 Orlando Piratas - Sokoakoak
- 15.00 Nuevo Taberna - Sortu informatika
- 16.00 Irati STS - Cerveceria Leintz
- 17.00 Fosforos - Insert Coin

## Laburrak

**■ SAILKATUAK**

Hirugarren fasea bukatzeko ihardunaldi bakarra falta denean hainbat talde sailkatuta dago. A multzoan Fosforos. Bn Naranja Mekanika eta Galartza Kontenedoreak. Azken partiduan elkaren kontra jokatuko dute eta lidergoa egongo da jokoan. D multzoan Irati STS. Hala ere, Cerveceria Leintzek aukera asko ditu. Azken multzoan oraindik ez dago ezer erabakita eta emaitzen arabera posible litzateke hiru talde puntuz berdinduta geratzea.

## Emaitzak

**A taldea**

Fosforos 5 - Diego Antonio 3  
Insert Coin 1 - Betrayer 6

**B taldea**

Naranja Mek. 10 - KK Jaurlearitziari 2  
Galartza Kont. 6 - Aurrera Bolie 3

**D taldea**

Irati STS 10 - MSM Ing. Int. 5  
Cerveceria Leintz 4 - AC Surcos 4

**E taldea**

Nuevo Tab. 1 - Orlando Piratas 7  
Sortu inform. 4 - Sokoakoak 5



# PARDO estetika zentrua

- DEPILAZIO PROGRESIBOA
- DEPILAZIO ELEKTRIKOA (BLEND ETA FLASH METODOA)
- SOLARIUMA DUTXAREKIN (11 SESIO 8.000 pta.)

UDAKO  
ORDUTEGIA  
Goizeko  
9.30etatik  
arratsaldeko  
7.30etara.  
Eguerdietan  
zabalik!

AURPEGI ETA GORPUTZERAKO TRATAMENDUAK

SESIOA: 3.300 pta.

11 sesioko tratamenduagatik sesio bat eta manikura doan!

- Drainaketa linfatikoa.
- Erreafirmatzailea.
- Elektroeskultura eta ultrasoinuak.
- Antizeluliti murriztailea.
- Mantenimendua.

Iparragirre enparantza, 4 Behea. Grupo San Juan  
☎: 79 52 17 ARRASATE



cerámicas  
**URIBARRI**

Zeramika  
erakusketa  
eta salmenta

Uribarri Etorbidea, 22-B  
Tel.: 79 81 80 • Faxe: 79 81 80  
ARRASATE

**IÑAKI LINAZASORO** (IDAZLEA)

# “Tertulian egoteko ohitura”

**G**azte sentitzen da 65 urteko idazle zuma-rragar hau, akaso umore onez egiten diolako aurre bizitzari. Ez du denborarik galdu, eta 21 liburu kaleratu ditu, zenbait egunkarietan idazten du, eta dagoeneko Ibarra herri txikiaren gorabeherak jasotzen dabil bere hurrengo libururako. Euskal Herrian egindako ibilaldietan, 2.600 ateraldi eta xelegekeri artxibatu ditu. Horiei buruz eta umore onaren gainean berba egitera etorri zen Udalpe elkartera.

**- Gai harrigarria hitzaldi bat emateko...**

Beno, nire bibliografian, bi liburu umoretsu idatzi izan ditut: *El alma ríe* eta *H gabe-ko umorea*. Behin umorearen inguruan berba egitea eskatu zidaten eta emanaldi arrakastatsua izan zen. Euskal Herriko umorearen analisisa egiten

du eta honen bidez gure kultura eta izaeraren inguruko erreflexioak sortzen dira. Gaiak luzerako ematen du euskal umorea oso aberatsa delako.

**- Umoreak islada dezake herri baten nortasuna?**

Bai, baina tamalez gero eta gutxiago. Umorea kanporatzeko momentu eta une ego-kia behar da. Gutxienez elkarriketa bat izan behar da gure ateraldiak norbaiti esan ahal izateko eta gaurko bizimoduak ez digu horretarako denborarik uzten. Jendea martxa handian bizi da, beti presaka. Ez dago barruko umorea ateratzeko aukerarik eta zoritxarrez umorea bajaran dago.

**- Umorea berreskuratzeko zer egin daiteke?**

Akaso hartu

beharreko lehenengo neurria telebista itxungitzea izan beharko litzateke. Tertulian egoteko aintzinako ohitura, telebistak izorratu du. Honen gainean erre-

portai bat idatzi nuen iazko gabonetan. Familia bateko ama, alarguna eta bakarrik bizi dena Zestoako balnearioan antolatutako gabon afarira joan zen. Lagunek, han ikusita, ea semeekin zergatik ez zegoen galdetu zioten. Eta harek nahiago zuela eurekin ego-  
tea berba eta barre apur bat



**“Euskal umorearen azterketa egiten dut eta honen bidez gure kultura eta izaeraren inguruko erreflexioak sortzen dira”**



# telebistak izorratu du”

ren etxera joatea baino. Zelan ba? galdetu zioten. Eta alar-gunak, telebista jarri eta ez didate kasurik egiten! erantzun zien.

## - Euskal umoreak ezau-garri bereziak ditu?

Niretzat bi euskal umore mota daude. Kostaldeko umore arin eta irekia eta barrualdeko jendearen umore filosofiko eta sakonagoa, gehienbat baserriarrena. Arrantzaleek ateraldi gehiago izaten dituzte baina borobilagoak eta sakonagoak barrualdeko jendearenak izaten dira.

## - Euskalduna txistezalea da?

Txistek orain jarri dira modan, baina hori ez da umorea. Letxe txarreko edozein da txiste bat kontatzeko gai. Burla eta iseka egiten duten istorioak kontatzeak ere, ez du umore ona dugula esan nahi, hori komiko izatea da.

## - Fernando amezketarren umorea ez al da inuzenteegia?

Ez, ez da inuzentea. Pernandok ere baditu ateraldi okerrak. Akaso, elizak garai bateko umorean influentzia izan zuela esan daiteke baina gure artean umore berdea ere izan da.

## - Euskaldunok serio fama dugu...

Hori topiko bat besterik ez da. Euskal Herrian beti ospatu izan dira xelebrekeriak. Lehen, eta batez ere herri txi-

kietan, beti egoten zen koardila xelebreren bat eta jendea haien graziak entzun eta txalotzeko prest egoten zen.

## - Zer egin dezakegu egu-nero umore onez jaikitzeko?

Woody Allen-ek zera esaten zuen: *zoriontsuak izan behar gara jaikitzeko gai garen momentu beretik*. Jakingo bagenu zein zorionsu garen barrutik, zorionsu izango ginateteke. Gure egoera aztertzeke. Gure egoera aztertzeke astirik ez dugu hartzen. Jatekoa eta edatekoa badugu, osasuna ere bai. Ez dugu inon-

go eragozpenik, eta azkenean parekoak ez digulako agurrik egin jartzten gara triste. Horrelako txorakeriekin kristoren arazoak sortzen ditugu, benetan arazorik ez dagoenean.

## - Ateraldi xelebrenik kontatuko diguzu?

Hamar bat urte dela jubilatzen Mondragoeko Ieregi medikuarena kontatuko dut. Baserri bateko neska zaharra eta 92 urteko bere aita, sekula medikura joan gabe eta hāra non, Ieregi medikuarengana joaten direla. Medikua aitari zer zuen galdetu, eta honek eztula zuela eta jateko gogo barik eta triste zegoela erantzun zion. Medikua, goitik behera begiratu eta aztertu, eta ez zion ezer aurkitu. Orduan honela esan zion: *nik ondo ikusten zaitut, baina badaezpadan, har ezazu goizetik pastilla hauek eta hemendikan 20 urtera buelta zaitetz kontsultara!*

“Arrantzaleek ateraldi gehiago izaten dituzte baina borobilagoak eta sakonagoak barrualdeko jendeak egiten ditu”

**OPEL** 

OPEL GAMA BERRIA.

Zatoz OPEL gama berria ezagutzera.

OPEL  
SINTRA



OPEL  
VECTRA  
CARAVAN



Araba etorbidea, 3 (ESKATU pabilioia)  
ARRASATE • Tel.: 79 05 86

## Udalperen urrezko eztaien egitarauaren barruan **Zartzuela emanaldia larunbatean**

Udalperen urrezko eztaien egitarauaren barruan, Zartzuela emanaldia izango da bihar Amaia antzokian. Modu horretan herrian aspaldi egon zen zartzuelarekiko afizioa gogora ekarri eta zaletuen egarria asetuko da.

Francisco Asenjo Barbieri musikariaren *Tres Sainetes Picarescos* obra eskeiniko du Madrilgo Opera Komikoak Fernando Poblerte Produzizio etxearen eskutik.

Tres Sainetes Picarescos lana hiru obra txikik osatzen dute: *El hombre es débil*, *El Niño* eta *Los dos ciegos*. Hiru obra txikiak laburrak dira eta ikutu alai eta umoretsua daukate. Obra hau joan den mendean sortu bazen ere, gaur egun moderno izaten jarraitzen duela esan daiteke, publikoan harrera ona du eta.

*El Hombre es débil* obrak gizon elegante baten asmo maltzurak kontatzen dute. Bere emaztea kanpoan dela, zerbitzariarengatik erakarritatik sentitzen da baina tentatizatik urruntzeko, beste zerbitzari batekin ezkondu arazten du diru pila baten truke. Egitera doanaz damutu eta atzera egin nahi du bere asmoan. Berandu da ordea; zerbitzaria ez da gaiztoa eta azkenean zerbitzariarekin eta diruarekin geratzen da.



Gaueko 10etan izango da zartzuela Amaia antzokian.

*El Niño* obrak baronesa aberats batekin ezkondu nahi den behartsu baten istorio barregarria dakarkigu. Behartsuak ume baten itxurak egin behar izango ditu honen senarra jokoaz kontu-

ratu ez dadin.

Azkenik, *Los dos ciegos*. Honek itsu itxurak egiten dituzten bi gizon kantariren komerriak dakartza. Bien artean borrokan dabilza nork bezero gehiago erakarri. Azkenean agente artistiko batek kantari bikote moduan kontratatzen ditu.

Francisco Asenjo Barbieriren zartzuela obra dibertigarri hauek bihar gaueko 10etan ikusi eta entzun ahal izango dira.

## Txatxilipurdiren udalekuak

Inor udako oporretan pentsatzen hasi bada, jakin dezala Txatxilipurdiren udalekue-tako matrikulazio epea zabalik dagoela.

Adin eta garai ezberdinetarako, 9 udaleku desberdinek osatzen dute aurtengo Txatxilipurdiren eskaintza: Bilin-Boloka, Babylekuak, Udalekuak Herrian, Udakanpada, Udalekuak Garaion, Mugi-Mugi Iparralderuntz, Gazteentzako Bakarrik, Astebete Kostaldean eta Europari bira. Azken hori da nobedade handiena, abuztuan burutuko da eta. Europari Bira 16-18 urteko gazteengan pentsatuz antolatuko da. Beste berritasun bat Mugi-Mugi Iparralderuntz udalekuan aurkitu daiteke, iaz ez bezala, aurtun Zuberoan egingo baita. Helburua, Iparraldeko euskaldunekin harremanak sendotzea.

Goizane Jausorok Txatxilipurdiko dinamizatzaileak esan duenez, iaz 600en bat umek eta gaztek parte hartu zuten udalekuetan eta aurtun marka hori betetzea edo gainditzea espero dute.

## MAHAINGURUA EMAKUMEAK LANEAN, GIZONEN PARE?

PARTAIDEAK:

**Maite Aristegi** (EBELEko idazkari orokorra)  
**Nagore Gabellanes** (Belar-hockeyko naziorteko jokalaria)  
**Esther Larrañaga** (Ingurugiroko Sailburuordea)  
**Nuria Martinez** (Autobus-gidaria)

MODERATZAILEA  
**Anaje Narbaiza**

**Maiatzaren 29an (osteguna), arratsaldeko 6.30etan  
AEDko lokalean (Pablo Uranga, 4)**

ANTOLATZAILEA:



Laguntzaileak:



ARRASATEKO UDALA



GOIO JAKA, ZABALTZEN BANAKETA ETXEKOA

## “Ordenagailuen etorrerarekin hiztegigintza guztiz aldatu zen”

Goio Jakak 25 urte daramatza euskarazko liburugintza munduan. Gaur egun 47 urte ditu, Bilbon bizi da eta Zabaltzen banaketa etxean egiten du lan. Astean zehar Arrasaten izan da egungo hiztegiei eta entziklopediei buruz hitzegiten.

— Zertan aldatu dira hiztegiak azken urteotan?


— Orain dela 30 urte Placido Mugikarena eta Resurrección Maria de Azcuerena zeuden bakarrik. Duela 20 urte berriz, batuan hasi ziren egiten eta duela 10 urte, euskaratik euskarara. Hauek fitxaz fitxa egiten ziren. Gero ordenagailua etorri zen eta honekin batera aukera berri asko. Gaur egun guk gomendatzen ditugun hiztegiak Bostak Bat-en Europa Hiztegia, Elhuyarren Hiztegi Modernoa eta Ibon Sarasolaren Euskara Hiztegia dira.

— Entziklopedia bat egiterako orduan zer izan behar da kontuan?

— Entziklopediak gaiak lantzeko dira, eta erreforman esaten denez, ikasleak orain, entzuteaz gain bere ahalmena garatu eta landu egin behar du. Alde batetik beraz, behar horri erantzunez egin behar dira entziklopediak.

— Entziklopedi tematiko on bat erosteko zer izan behar da kontuan?

— Hiru gauza. Alde batetik, eroslearen interesaren aldetik entziklopedia nori zuzenduta dagoen begiratu. Bestalde, hizkuntza maila egokia eta zuzena duen begiratu behar da. Ez du zentzurik 15 urteko gazte batek erabili nahi duen entziklopedia bat hitz tekniko betetik egotea. Azkenik,



entziklopediak berak, hitzak edo gaiak lokalizatzeko samurtasuna eman behar du. Hiru ezaugarri hauek betetzen dituen entziklopedia Gazteen Entziklopedia da. 8-16 urte bitarteko ikasleei zuzenduta dago.

— Eta hiztegi entziklopediko bat erosteko?

— Hitzen sarrera kopurua, orokortasuna, proportzioak, erabilgarritasuna, gaurkotatua eta jakina, salneurria. Une honetan merkatuan hiru daude: Elhuyar Hiztegi Entziklopedikoa tomo bakarrekoa, Euskal Hiztegi Entziklopedikoa zortzikoa eta Lur Hiztegi Entziklopedikoa hamar tomokoa. Aipatutako ezaugarrietan hirurak dira desberdinak. Esan behar da Elhuyarrena oso erabilgarria dela, tomo bakarra delako, baina Euskal Hiztegi Entziklopedikoa orain dela bi hilabete argitaratu da, beraz, berriena, zabalena eta sakonena da.

“Ez du zentzurik entziklopedia bat hitz tekniko betetik egotea”

## aste gazte

### ■ BEKAK

• Gipuzkoako Diputazioak kultura arloko beka deitu ditu. Modalitateak:

a) Musika, dantza eta antzerkiaren arloetan ikasketak egiteko beka.

b) Arte plastiko, ikus-entzunezko, argazkigintza, literatur sorkuntza eta musika konposaketa arloak promozionatzeko beka.

d) “Nikanor Zabaleta” musika beka.

e) Historia ikerketako bi beka.

f) Iraupen laburreko arte-eremuko jardueretan bildu edo parte hartzeko laguntza politzak.

Guzti hauek eskatzeko epea: maiatzak 30.

• Hezkuntza eta Kultura Ministeritzak, 98-99 ikasturtean Estatu Batuetan ikasketak artistikoak osatzeko beka aurrikusi ditu. Epea: uztailak 17.

### ■ LANA

• Peraltako udalak gizarte langile bat behar du. Epea: maiatzak 28.

• Galdakaoko udalak arkitekto bat behar du. Epea: EBOean argitaratu zain geratzen da.

### ■ LEHIAKETAK

• San Juan jaietarako atarako diren kamisetetarako marrazkia aukeratzeko lehiaketa. “Geu gara garra” lema eta “San Juan jaiak 97” testua idatzita agertu behar dira. Zuri-beltzean, formato librea. Lan guztiak sarituak izango dira. Bozetoak aurkezteko azken eguna: ekainak 2.

Informazio gehiagorako:

GAZTE ZERBITZUA

☎ 77 00 65

## ETXEBIZITZAK

### 1. Saldu

- Etxebizitza salgai Torrepe dorrean. Tel.: 79 61 68.
- Larrea plazan etxebizitza salgai. Tel.: 79 26 34.
- Zarugalde kalean etxebizitza salgai. Tel.: 79 63 22.
- Laredon apartamentua salgai. 4. solairuan eta igogailuaz. Prezioa: 6.500.000. Tel.: 76 44 34.
- Okendo kalean etxebizitza salgai. Tel.: 79 86 22.
- Erdialdean etxe handia salgai. Tel.: 79 42 13.

### 2. Erosi

- Deba Garaian 60 m<sup>2</sup>ko apartamentua erosiko nuke. Dei egin gauez. Tel.: 79 23 60.

### 3. Errentan emateko

- Pisua alokatzen dut erdialdean. Tel.: 79 59 96. Dei egin Betatik aurrea.
- Ezkaray-en pisua alokatzen da uztailean eta irailean. Oso ondo prestatutako urbanizazio baten (pizina, tenisa, umeendako toki...) Tel.: 79 31 56.
- Peñiscolan pisua alokatzen da uztailean eta abuztuan. Tel.: 77 05 88.
- Laredon apartamentua alokatzen da uztailean. Hondartza ondoan dago. Tel.: 79 52 80.
- Torrevejan apartamentua alokatzen da. Hondartzatik 150 m.ra. 2 gela, saloia eta jangela. Tel.: 77 03 85.
- Buhardila alokagai Zarautzen, San Juanetatik irailara arte. 6. solairua, igogailuaz. Hondartzatik gertu. Tel.: 79 54 93 eta 13 07 90.

### 4. Errentan hartzeko

- Etxebizitza alokatuko nuke ahal balditz Zigarrolan. Tel.: 79 02 66. Igo-ne.
- Arrasaten pisu bila nabil. Tel.: 79 96 10. Maritxu.
- Etxea edo logela bat alokatuko nuke Leintz bailaran. Tel.: 745 41 03 03. Lan ordutan. Amaia.

### 5. Etxe konpartituak

#### ETXEBIZITZAK

1. Saldu
2. Erosi
3. Errentan emateko
4. Errentan hartzeko
5. Etxe konpartituak
6. Bestelakoak

#### GARAJEAK

7. Saldu
8. Erosi
9. Errentan emateko
10. Errentan hartzeko
11. Bestelakoak

#### LOKALAK/ORUBEAK

12. Saldu

13. Erosi
14. Errentan emateko
15. Errentan hartzeko
16. Bestelakoak

#### LANA

17. Eskaintzak
18. Eskaerak
19. Bestelakoak

#### IRAKASKUNTZA

20. Eskaintzak
21. Eskaerak
22. Bestelakoak

#### MOTORRA

23. Saldu

24. Erosi
25. Bestelakoak

#### DENETARIK

26. Saldu
27. Erosi
28. Trukatu
29. Eman
30. Hartu
31. Galdu
32. Aurkitu
33. Bestelakoak

#### HARREMANAK

34. Agurrak
35. Kontaktuak
36. Deialdiak
37. Bestelakoak



# 77 05 65

ARRASATE PRESS • Otorora Lizentziatua, 31 • 20.500 (ARRASATE)

Sail honetan agertzen diren iragarkiak dohainekoak dira. Partikularren iragarkiak argitaratzen ditugu bakarrik. Arrasate Press ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzunkizunik. Asteazken eguerdia baino lehen deitu behar da iragarkia jartzeko.

- Pisu konpartitu baten gela bat nahi dut. Tel.: 79 96 10.
- Pisua osatzeko laguna behar dugu. Eskola Politeknikoaren ondoan. Tel.: 77 05 00.
- Konpartitzeko edo alokatzeko etxe bila nabil. Tel.: 79 99 82. Iñaki. Gauez.
- Aramaion pisua osatzeko lagun bat behar da. Tel.: 77 04 98. Eguerdietan. Irene.

#### GARAJEAK

### 7. Saldu

- Roneoko etxeetako lehenengo solairuan garajea salgai. Tel.: 79 18 70.
- Zarugalde kalean garaje itxia salgai. Tel.: 79 63 22.

### 9. Errentan emateko

- Roneoko etxeetan garaje itxia alokatzen da. Tel.: 79 19 64.
- Aldaigainen garajea alokatzen da. Tel.: 79 51 93.
- Garajea errentan emateko daukat

Kontzeziñon. Tel.: 79 55 20.

#### LOKALAK

### 12. Saldu

- Musakolako kiroldegiaren ondoan lokal komertziala salgai. 76 m<sup>2</sup>. 8.300.000 pta. Negoziagarriak. Tel.: 79 59 75.
- Kalealdean, baina Zarugaldetik gertu lokala salgai. 100 m<sup>2</sup>. Bi solairu. Tel.: 79 07 24.

### 14. Errentan emateko

- Arrasaten erdigunean lokal komertziala saldu edo errentan ematen da. Ferrerías kalean, 72 m<sup>2</sup>. Tel.: 79 97 86.
- Erdiko kaleko 48. zenbakian edozein negozio jartzeko aproposa den lokala alokatzen da. Tel.: 79 18 00.

#### LANA

### 17. Eskaintzak

- Klinika laguntzailea eta geriatrian

titulodun andra pertsona nagusiak zaintzeko gertu. Tel.: 79 34 53.

- Emakume gaztea gertu etxea, atarteak edo bulegoan garbitzeko. Tel.: 79 59 75. Agus.

- Esperientziadun neska etxeko lanak egiteko gertu. Tel.: 945 - 44 52 79.

- Bulegotan, dendetan eta etxeko lanetan esperientziadun emakumea goizez lan egiteko prest. Tel.: 76 82 12.

- Neska prest etxeko lanak egin eta umeak zaintzeko. Tel.: 79 96 10. Maritxu.

- Esperientziadun neska umeak zaintzeko, Autoa beharrezkoa da. Tel.: 79 31 44. Gauez.

- Andra euskalduna arratsaldetan etxeko lanak egin eta umeak edo pertsona edadetuak zaintzeko gertu. Tel.: 79 07 73.

- Esperientziadun emakume euskaldunak pertsona nagusiak zainduke lituzke. Margari. Tel.: 77 04 60.

### 18. Eskaerak

- Kamareroa behar da. Tel.: 79 68 57.
- Emakumea behar da igandetan lan egiteko, Autoa beharrezkoa da. Tel.: 79 47 85.
- FP2 duen mutila elektrizitatean eta elektronikan aditua dena behar da. Tel.: 79 06 48.

- Taberna lanetarako neska euskalduna behar dugu. Tel.: (945) 44 50 86.

- Esperientziadun pertsona bat behar da dekorazio denda baten lan egiteko. Tel.: 77 11 48. Denda ordutan.

- Gidatzeko karneta duen pertsona behar dugu ume txiki bat zaintzeko. Tel.: 58 50 40. Maite edo Jabi.

### 19. Bestelakoak

- Au-pair bezala familia jator baten ume bat zaintzen joan nahi baduzu deitu. Tel.: 79 82 42. Aintzane.

#### IRAKASKUNTZA

### 20. Eskaintzak

- Esperientziadun neska larunbat goizetan klase partikularrak emateko gertu. Tel.: 79 06 39.
- ESOk klase partikularrak ematen ditut. Talde txikiak. Esperientzia. Tel.:

79 56 78.

• Magisteritza daukan neska batek klase partikularrak emango lituzke. Tel.: 77 10 21. Maite.

## 21. Eskerak

• 3. BUP eta 1. LOGSEko matematika eta fisika klase partikularrak behar ditut. Tel.: 79 66 56.

• Elektronika analogikoko klase partikularrak behar ditut. Tel.: 79 41 25. Aitor.

• Uztailean, 3. BUPeko matematika klase partikularrak hartuko nituzke. Tel.: 79 65 31. Maite.

## MOTORRA

### 23. Saldu

• Renault 11 TXE, SS-X salgai. Tel.: 79 22 85. Mikel.

• Suzuki DR2. 50 cm<sup>3</sup> salgai. Tel.: 79 25 73. Ibon.

• Bultaco Cross 350 motorra salgai. Tel.: 79 25 73. Ibon.

• Renault 5 GTL salgai. SS-P. Egoe-

ra ona. Tel.: 79 81 35 / 77 93 30.

• BMW R-65 motorra salgai. Txuria, errubera berri berriak. Oso egoera onean. 260.000 pta. Dei egin 79 97 60 telefonora eta utzi mezua, nik deituko dizut.

• Opel Corsa 1.3 GT salgai. BI-AL. Tel.: 620 19 02. Arratsalde. Txomin.

• Cajiga 125 cc motor berria salgai. 300.000 pta. Tel.: 79 26 34.

• Aprilia Clinver trial motorra salgai. 250 c.c. ia berria (1.300 km). Tel.: (945) 44 51 14.

• Kawasaki Vulkan motorra salgai. Tel.: 77 00 62. Arratsaldeko 3tatik aurrera.

• Errepideko aluminiozko bizikleta 55 neurriko salgai. Kuadroa Columby eta Campagnolo osagaiak. Prezioa: 45.000 pta. Tel.: 79 60 85.

## DENETARIK

### 26. Saldu

• Auto barruan umea eramateko aukia salgai. Tel.: 79 44 14. 8etatik

aurrera deitu.

• Macintosh Classic ordenadorea eta inprimagailua salgai. Tel.: 36 03 89.

• Salgai: Rueka bat, egurrezko arka tailatu bat, egurrezko seaska tailatu bat, egurrezko jarleku luze bat, eta bi egurrezko kutxa, denak egur onetan eginak. Tel.: 79 65 31 gaueko 10etatik 12ak arte. Astelehenetan ezik.

• Idazmakina mahai eta guzti salgai. Tel.: 79 65 31 gaueko 10etatik 12ak arte. Astelehenetan ezik.

• Errepideko bizikleta salgai. 55 tailakoa. Columbus Cortine kuadroa, Mavic gurrilak eta Campagnolo piezak. 45.000 pta. Tel.: 79 60 81.

• Collie txakurra salgai. Tel.: 79 06 98. Joseba.

• Siberian Husky txakurkumeak salgai. Pedigri bikaina eta prezio ezin hobean. Tel.: 79 59 85.

• Auto karabana salgai. 3,90 m. 5 lagunendako tokia. Merkea. Tel.: 79 91 21. Lanegunetan, gauz.

• Estreinatuta barik dagoen sofa-oheta salgai. 120 zm. Prezio ona. Tel.: 79 14 84.

### 27. Erosi

• Bigarren eskuko argazkiak proiektatorea erosiko nuke. Tel.: 79 55 88.

## 29. Eman

• Komuneko osagarriak emateko pres nago. Tel.: 76 44 34.

## 31. Galdu

• Eguzkitarako betaurreko graduatuak galdu zaizkit. Tel.: 79 40 09. Gaez.

• Aldaigainen katua galdu da, ernea da, grisa eta geige kolorekoa. Tel.: 79 15 00.

• Levis kazadora bat galdu nuen San Andresko jaietan Lennon tabernan. Tel.: 79 01 07.

• BH markako umeen bizikleta bat galdu dut. Larroxa da. Tel.: 79 19 92.

• Erlojua galdu zitzaidan Musakolako jaietan. Zapatu arratsaldean. Radiant markakoa. Tel.: 79 69 69.

• Anbar motatako zilarrezko pultsera galdu nuen Musakolako jaietan. Tel.: 79 81 16.

# EUSKAL HIZTEGI ENTZIKLOPEDIKOA



**ZABALTZEN** IGARABIDEA, 88 - 20009 DONOSTIA  
Tel.-Fax: (943) 31 06 75


## INFORMAZIO GEHIAGO NAHI DUT

IZEN-ABIZENAK.....  
HELBIDEA:.....  
.....  
HIRIA/HERRIA:..... POSTA-KODEA:.....  
TELEFONOA:.....

- 8 TOMO, 22,5 X 29 FORMATUAN
- 3.392 ORRIALDE
- 100.000TIK GORA KONTZEPTU
- 21 MILIOI TESTU-KARAKTERE EDO 3 MILIOI TESTU-HITZ

# Juanito Arzamendi

MUSIKARIA



**A**rrasaten jaio zen 1927ko azaroan. Bere bizitza musika partiturei lotuta igaro du. Arrasateko Musika Bandako eta Danok abesbatzako zuzendaria izan zen. Arrasate Musikal eta bere orkestraren zuzendari eta sortzailea ere izan zen. Konpositorea ere bada; Udala Mendi eta Gora Arrasate obrak berak sortu ditu. Egun jubilatuta dago baina opera bat idazten dabil.

1. Zein da zure horoskopoa? Sagitario.
2. Sinestuna zara? Bai.
3. Animalia bihurtzekotan? Ez nuke nahi animalia bihurtu.
4. Zure akats bat/gauza on bat? Gehiegi konfiatzen dut/  
Gauzak ondo egiteko borondatea.
5. Zerk lotsarazten zaitu? Gaur egungo egoerak.
6. Amets bat? Bakea.
7. Zer kenduko zenuke mundutik? Gerrak, miseria, gorrotoa...
8. Gertakizun historiko bat? Jesukristoren jaiotza.
9. Nor miresten duzu? Gurasoak.
10. Zeri diozu beldurra? Gaisotasunei.
11. Zertaz damutzen zara? Kulturaren herrian gauza gehiago ez lortzeaz.
12. Negar egin duzun azken aldia? Anaia hil zenean.
13. Zer falta zaio Arrasateri? Arrasate Musikalenzat lokal berezi bat.
14. Eta zuri? Konforme nago.
15. Lanbidez aldatzekotan? Beti musikari.
16. Arrasateko gustoko toki bat? Arrasate osoa eta inguruko mendiak.
17. Zein da esan bai, baina azkenean egin ez duzun gauza hori? Orkestra sinfoniko edo musika banda tinko bat lortzea.
18. Zein egunkari irakurtzen duzu? *El Diario Vasco*.
19. Gustoko janari bat? Baba gorriak azekin.
20. Liburu on bat? *Esta noche la libertad*.
21. Filmerik onena/txarrena? *La Misión*/Asko daude.
22. Musika talderik onena/txarrena? Orkestra sinfonikoak / Zarata larregiko taldeak.
23. Telebistako programarik onena/txarrena? Dokumentalak eta kontzertuak / Asko daude.
24. Egin dizuten oparirik politena? Arrasateko urrezko domina.
25. Denbora librean zertan pasatzen duzu? Musika egiten eta emaztearekin pasioan.
26. Oporretarako toki bat? Hemen gustoren.
27. Etxeko lanik gorrotagarriena? Bat bera ere ez zait gustatzen.
28. Gomendio bat? Gure artean maitagarri izan.
29. Zerbaitegatik emango zenuke bizitza? Familiagatik.
30. 200 milioi irabaziz gero? Irabazi eta gero erabakiko nuke.

**EZ EROSI ZURE PROGRESIBOAK ITSU ITSUAN**




Urrutira eta hurbilera betaurreko berekin bikain ikusteko ez dira aski kristal progresibo onak. Hoberenak behar dira: VARILUX, oso ongi graduatuak eta aditu batek egokituak: MULTIOPTICAS.

Horregatik, VARILUX MULTIOPTICASekin fidatzen da eta MULTIOPTICASek VARILUX gomendatzen du.

Ez erosi itsu itsuan.

**19.500 pta.tik aurrera**



MULTIOPTICAS kreditu txartelarekin ordain ezazu nahi duzun moduan eta uanean.

**VARILUX BEZALA, FIDA ZAITEZ MULTIOPTICASekin**



**MULTIOPTICAS**

ZERBITZU OPTIKOETAN **1a**

**MULTIOPTICAS LARRAÑAGA** : Ibargarai, 16 - Tel. 76 15 75 - 20570 BERGARA  
Juan Carlos Guerra, 1 - Tel. 79 29 95 - 20500 ARRASATE  
J. M. Barandiaran Enparantza - Tel. 88 99 88 - 20240 ORDIZIA

**MULTIOPTICAS EIBAR** : Bidebarrieta, 2 - Tel. 20 05 22 - 20600 EIBAR

# Inguruan edertasuna nagusi izan arren lan ugari gure baserrietan

**M**aiatza, loreen hilabetea. Baserriak sekula baino ederrago ikusten dira, zuhaitzak hostoz beteta, batzuk dagoeneko loratu, zelaiak ere inork sartu ez dituen lorez beteta, eta etxe inguruetan gusto handiz jarritako makina bat koloreko lora. Lorak inguruak edertu arren, baserrietan ez da horregatik lan gutxiagorik izaten. Aurrez egindako lanaren ordaina jasotzeko sasoi bada, baina gehiago lurra lantzekoa, gero zerbait jaso gura bada behintzat. Horregatik maiatzean ortu lanek izan dute eta izaten dute garrantzia berezia gure baserrietan.

## ORTU LANAK

Aza ederrak jasotzen dira urteko sasoi honetan, baita letxuak, idarrak, patata berria edo baba beltzak ere. Ortuetatik ateratako barazki ederrak ikusteko aukera aparta egoten da aste-oro Mondragoen bertan, hainbat eta hainbat baserriarrek oraindik badu eta baserrian ateratakoa azokara eramateko ohitura. Ondo dakite hori azokara joateko ohitura dutenek, orain sekula baino ederrago egoten direlako baserriarrek azokan jartzen dituzten salmenta postuak.

Lehen esan moduan, aurrea begirako lanak dira baserrietan denborarik gehien eramanen dutenak loreen hilabete honetan. Zerrenda gisara emanda, lanak hauek izango lirateke: artoa erein eta jorratu, erremolatxa jorratu, patataren bijorra egin, babarruna sartu, tomate landarak ipini, piparrak landatu, porruak etab.



Gaur egun ez da garirik ereiten hemen inguruetan.

Azken horiek ez dute aparteko sekreturik, ezta historiarik eta ezta garrantziarik ere, herri-gunearen inguruan dauden ortuetan baserrietan moduan egiten direlako.

## SASOI BATEAN GARIA EREITEN

Atzera begira jarriaz gero, berrigo garia ekarri behar orrialde honetara, nahiz eta gaur egun inork erein ez, edo ereiten duenak modu anekdotikoan erein, ohitura ez galitzeagatik. Behin baino gehiagotan aipatu den moduan, garia oinarri oinarritzkoa zen orain urte batzuetako euskaldunen bizimodurako. Bixente Pagoagaren hitzetan, lehen maiatzaren inguruan "apurtxo bat lehenago" garia sailean tri-

lloa pasatzen zen, idiei edo behiei lotu eta sail osoan pasatzen ei zen. Itxura denez ordu-rako garia ermetzen hasita egoten zen eta landare bakoitzak dozena-erdi inguru buru izaten zituen. Trilloaren bidez gariaren orpoa zabaldu egiten zen eta bertatik irtetzen ei ziren aleen buruok. Bixentek berak gogoratzen du horren gaineko esaera zahar bat, horrela dio: "Txikixa banintzen handixa banintzen... maiatzean burua nintzen".

## GAZTAGINTZAN MAKINA BAT ORDU

Zeruari begira ere makina bat denbora pasatzen zuten baserriarrek. Izan ere, eguraldiaren oreka ezinbestekoa izaten zen gerora begira, bedar lanei


begira. Oraindik ez dira has-ten bedar lanak, baina orain-txe hartzen du indarra. Dena dela, aipatzekoa da gaur egun lehen baino askoz ere goizago egiten direla bedar lanak.

Bukatzeko abereen kontuak ekarri behar. Eta egia esan, arlo honetan zer esan handirik ez, gehienak mendira edo larrera bidalita egoten dira, ardiak izan ezik. Gazta egiteko egunak izaten dira, horregatik, ardiak jeitsi eta gaztagintzan igarotzen du ordu piloa baserriar askok. San Pedro-San Juanak arte horretan ibiliko dira gau eta egun. Uda helduko da orduan eta baserrietako lanak neurri batean aldatu egingo dira, uzta jaso eta ona bada ospatzeko garaia izango delako.

## ■ Horoskopoa

- **Aries** Ea behingoz esnatu eta konturatzen hasten zaren.
- **Taurus** Zure ondoan biziz gero, beti umore onez.
- **Gemini** Gaur ere mimo bila? Aspergarria zara.
- **Cancer** Gainezka egin baino lehenago barrezka hasi.
- **Leo** Itxaropena azkenengo galdu, ez lehenengo.
- **Virgo** Ahalegindu zaitetz zoragarriagoa izaten.
- **Libra** Artista bat zara. Nola lortzen duzu nahi duzun guztia?
- **Scorpio** Goizetan beroegi hartzen duzu kafesnea. Eta gero...
- **Sagittarius** Oporrak behar ei dituzu, baina merezi?
- **Capricorn** Gogorra zara kanpotik baina biguna barrutik.
- **Aquarius** Zenbat lagunek zoriondu zaituzte zergatik jakin barik?
- **Piscis** Ulertu iezaziozu, garai txarra igarotzen ari da.

## ■ Gurutzegram



JUAN BAUTISTA AGORRIA

**Horizontalak** 1. Arana, Arrasate Pres-seko diseinatzailearen izena. 5. Nafarroako mendatea, Lizarra eta Nabaskotze artean. 8. Arditxakur. 10. Galiako antzinako herri bateko kidea. 11. Begian dagoena edo hari dagokiona. 13. Arraio. 15. Denbora-tarte laburra. 16. (Ald.) Laxatu aditzaren infinitiboa. 17. Sodioa. 18. Osasunerako Mundu-Erakundea.

**Bertikalak** 1. Gakoa duena. 2. Txakur. 3. Itsutasun. 4. Begi-itxurako kolorezko or-bana, intsektu asko, arrain, hegaztien luma etab. etan agertzen dena. 5. Inor izenordainaren indargarria. 6. Latinoamerikako zenbait doinu desberdinen izena. 7. Nafarroa Behereko udalerrria, Xalbadorren sorterrria. 9. Bromeliazoeen familiakoa eta Ananas generoko landarea, bere fruitu oso preziatua da. 12. Minus, kenketaren ikurraren izena. 14. Ordenagailuak bere lanerako duen memoria ahalmena.

**Horizontalak:** 1. Gakodun. 2. Or. 3. Itsumen. 4. Ozelo. 5. Inortxo. 6. Son. 7. Urepele. 9. Anana. 12. Laxa. 17. Na. 18. OME.  
**Bertikalak:** 1. Goto. 5. Isu. 8. Artzanor. 10. Senone. 11. Okular. 13. Demontre. 15. Une. 16. (Ald.) Ken. 14. Kam.




**FOTOKOPIAK: Z/B**

**2.5** pta.tik aurrera

**FOTOKOPIAK: KOLOR**

**69** pta.tik aurrera

Olarte, 13 • ARRASATE • Tel.: 79 79 06



• Solarium-a dutzarekin.

**LAURA**  
estetika zentrua

- Depilazioa argizari hotz edo beroarekin.
- Depilazio elektrikoak ( BLEND metodoarekin ).
- Aurpegiaren tratamenduak.
- Masaia.

**Adi! Pablo Urangatik Uherkape kaleko 2.zenbakiko E1.go ezkerrera pasatu gara.**

Leku aldaketagatik, maiatzan 8.000 pezetagatik solariumeko 10 +1 sesiotako eskaintza berezia daukazu.





Asteartetan, gaueko 9.30etan emitituko da saio berria.

# Burua Astinduz

## Rock musikak bere txokoa du ATBn

Eneko Allendek, Iñakok eta Jose Maria Bañosek programa berri bat sortu dute astearte gaueko: Burua Astinduz. Izenburua irakurritako pentsa daitekeen moduan, erritmo azkar eta doinu gogorreko musika da saio berriko ildo nagusia.

Asteartetan gaueko 9.30etan ikusi eta entzun

ahal izango da Eneko Allendek aurkeztuko duen musika programa berria eta bertan, inguruko herrietako areto edo plazetan jo duten puntako taldeen musika, elkarriketak eta erreportaiak eskeiniko dira. Jakina, kontzertuen agenda ere ez da falta izango.

Hiru rockero hauek, tele-

patiaz edo, orain dela gutxi egin dute topo elkarrekin, hirurek zuten musika programa bat egiteko gogoia eta. Pentsatu eta hasi. Orain ATBko kamarak eta hiru gazteak asteburu kontzertuz kontzertu dabiltza. Ea herriko rock zaleek zein harrera egiten dieten programa berri horri.

## Final erdiak Kukaratxa Motelen

Datorren osteguneko Kukaratxa Motel lehiaketan, final erdiak jokatuko dituzte bi taldek.

Hortik garaile ateratzen den taldea bi aste barru jokatu den final erditik ateratzen den beste taldearekin lehiatuko da Port Aventura bidaia irabazteko.

Port Aventura bidaia Ecuador bidaia agentziak eskaintzen du.



Unai Torres, aurkezleatariko bat.

### ■ ATBko asteko programazioa

23 Ostirala	26 Astelehena	27 Asteartea	28 Asteazkena	29 Osteguna	30 Ostirala
20/20.30/21.00 Berriak	13.30 Astebete (Errep.)	13.30 Mondrasport (Errep.)	13.30 Burua Astinduz (Errep.)	13.30 Munduari Buelbaka (Errep.)	13.30 Kukaratxa Motel (Errep.)
21.30 Astebete	20/20.30/21.00 Berriak	20/20.30/21.00 Berriak	20/20.30 Berriak	19.15 Kukaratxa Motel	20/20.30/21.00 Berriak
	21.30 Mondrasport	21.30 Burua Astinduz Eneko Allendek aurkeztutako musika saio berria	21.00 Munduari Buelbaka Tantania Aitor Okina	20/20.30/21.00 Berriak	21.30 Astebete
				21.30 Kukaratxa Motel (final erdiak)	



**A**rgazki historikoagurkoan, Pedro

Biteriren jaiotzaren mendeurrenaren omenaldikoa, Baionako hilerrian. Pedro Biteri Arana 1833ko uztailearen 18an jaio zen Iturriotz kalean, eta

1908ko maiatzaren 22an hil Miarritzen, 75 urte zituela.

Bere heriotzean Pedro Biterik 774.000 pezeta utzi zituen eskolak egiteko. Sebero Altube plazan egon zen barazki azoka ere berak eginakoa zen. 1911ko ekainaren 30ean San Juan plazan bere omenezko monumentoa inau-

guratu zen. Mendeurrenean, Baionako hilerria joan zen hainbat arrasatear, Zipriano Loidiren, "Akixu"-ren taxisean. Ezkerrean eta zutik, Mariano Montiano (maisua), Arano (andereñoa), Eugenio Resusta (Karrakirri) alkatea, Patri Egidazu, eta Bonifazio Perez de Arenaza. Eserita Felix

Garai, Karmelo Balanzategi "Ezkerra", eta Olalde. Panteoi barruan, Maria Azkoaga, Lejarizarizti (Kanpazarko mikeltearen alaba) eta Bere-zibar "Montxon" dendakoa.

Urtea: 1933-7-18

Argazkia: Felix Garai

Informazioa: Josu Otañui



## DOTAKON

Gazteendako azken moda eta bigarren eskuko arropa. Konplementuetan denetatik: biserak, galtzak, ilerako tinteak, partxeak, atzazkalak margotzekuak, banderak, espalderak, pegatinak...

Otalora Lizentziatua, 1  
ARRASATE  
Tel. / Fax: 77 16 92





mpresen

gestiogintza eta  
zuzendaritzarako  
goi mailako  
karrera berri bat  
Elgoibarren

kasle eta guraso  
interesatuentzat,  
Gestio Eskolaren  
aurkezpena,  
Arrasateko  
Monterron  
Kultur Etxean,  
maiatzaren 30ean,  
arratsaldeko 6etan



Informazio gehiago  
Gestio Eskolan (74 41 32) edo IMH eraikuntzan, (San Roke, 1 - 20870 Elgoibar)



# OPEL VECTRA BERRIA



## ARTEA MUGIMENDUAN



### SEGURTASUNAREN ARTEA

Vectra berriak berarekin segurtasun ekipamendu berri eta osatuena dakar, **seriean bertsio guztietan:** ABS, tamaina handiko, Airbag mixtoa, Multilink atzealdeko suspentsioa, Opelen pedal atzeratzaile eksklusiboak, aldamenetako babes barra bikoitzak, bizitegi berrindartua, tentsore piroteknikodun zinturoiak, urrutiko itxitura zentralizatua, lapurreten aurkako blokeatzaile elektronikoa...

### ARTEAREN TEKNOLOGIA

Vectra berria, artea eta teknologiaren arteko konbinaketa perfektoa. Opel Ecotec motore berritzaileak bultzatua. Ekonomia, prestazio eta ekologian liderrak. Vko sei zilindrodun 2.5 arekin eta 170 cv.ekin gaina hatzen duten motoreak.

Dieselaren maitaleentzat, turbodiesel bertsioak ekonomia eta prestazioetan erantzun ezinhoea eskaintzen du. Bertsio gehienetan seriean dator trakzioaren kontrol elektronikoa, teknologiaren irakasgai bikainena.

### BERRIKUNTZAREN ARTEA

Liluragarria berrikuntzetan eta liluragarria diseinuan. 4 edo 5 atzetan eta bere bertsioetan: Base, GL, GT, CD eta CDX. Horrelakoa da Opel Vectra berria. Bere linea eksklusiboari esker bere kategorian aerodinamika koefiziente txikiena lortzen du, CX: 0,28. Barrualdeko diseinuan erosotasuna eta isiltasuna nagusitzen dira.

Teknologia eta artearen arreko oreka esistitzen da.  
**OPEL VECTRA BERRIA.**  
**ARTEA MUGIMENDUAN.**

**OPEL**

**TALLERES OLA**

Olabarrena Auzoa, z/g. Tfnoak: 76 33 44 / 45 / 46. **BERGARA** (Gipuzkoa)

Zerbitzu Oficiala **ARRASATEN**

**TAKOLO AUTOAK**

Araba Etorbidea, 3.(Edif. Escatu). Tfnoak: 79 05 86

**OPEL KONTZESIONARI OFIZIALAK, HOBEAK.**